



Kalitate Legea bere azken txanpan

1) Lege hori beharrezkoa dela adierazteko erabili dituzten argudioak

- a) Eskola porrota
- b) Ikasleen "maila"
- c) "Eskolako bizikidetzaren hondatzea"

2) Oinarritzat hartu dituzten dotrinak

3) Kalitate Legearen neurri zehatzak

- 3.1) Errebalida (Batxilergoko Azterketa Orokorra)
- 3.2) DBHrako ibilbide itxiak
- 3.3) Ebaluazioa, ikasturte promozioak, errepikapena eta tituluak
- 3.4) Zuzendaritzen papera
- 3.5) Inmigrazioaren gainean
- 3.6) Irakasleen zeregina
- 3.7) Pribatua, ikasleak onartzeko irizpideak, curriculum espezializazioa
- 3.8) Haur Hezkuntza
- 3.9) Lehen Hezkuntza
- 3.10) Teknologi batxilergoaren ezabaketa
- 3.11) Erlijioa eskolan

4) Proiektuaren balorazio orokorra

5) Irakaskuntza kalitatea hobetzeko

- 1) Hezkuntzara bideratutako baliabideak gehitu, integraziorako baliatu
- 2) Irakasleen egonezina arindu
- 3) Ikastetxeen eta erkidegoen autonomia handitzea
- 4) Kalitatearen hobekuntzan benetan eragina izango luketen neurriak

6) Proiektua bertan behera uztea exijitzen dugu

Kalitate Legea bere azken txanpan

Uztailaren 26an Ministroen Kontseiluak Hezkuntza Kalitate-Lege Organikoaren aurreproiektua onartu zuen. Dagoeneko bidalita dago Madrileko Parlamentura dagozkion tramiteak hasteko. Azken aldian prozesuak burutzeko darabilten abaila biziari eusten badiote oraingoan ere, litekeena da onartuta egotea azaroaren azkenetarako edo abendu hasiera ingururako.

Proiektuari aldaketa batzuk egin dizkiote aurreko testuen aldean. Hona hemen aldaketa nagusiak:

- Lanbide Hastapeneko programak berregituratu egingo dira eta aukera emango dute DBHko titulua lortzeko. Honek argiago erakusten du ibilbide segregatua dela.
- Batxilergoko errebalida gainditzen ez duten ikasleak goi mailako Lanbide Heziketan sartu ahal izango dira azterketa berezi bat gainditu ondoren.
- “Ez ohiko” aukera bat ematen da ikasleak DBHko titulua lor dezan “irakasgairan bat gainditu gabe eduki arren”.

Aldaketa horiez eta hain garrantzitsuak ez diren beste batzuez gain, “motibo azalpen” luze bat erantsi da Legearen beharra zurrizteko. Sarrera hori bestetan baino txukunago idatzita dago eta ez dugu aurkitzen bertan ohiko astakeriarik. Aldi honetan ministroak idazle on bat aurkitu du, antza. Edukiak, hala ere, ez dira apenas aldatu. Gauzak bestetan baino finago azaldu arren, arrazoiak aurreneko Oinarri Dokumentuan jaso zirenak eurak dira. Legearen edukiaren laburpen on bat maiatzaren 11ko ABC egunkariak eskaini zigun, portadako idazpuruetan halaxe laburtzen baitzuen: “Kalitate Legeak hezkuntzaren balio historikoak berreskuratzen ditu”, “LOGSEa ehortzirik, berreskuratzen egiten ditu errebalida, ikasturte errepikapena eta Erljioa irakasgai gisa, bai eta haur hezkuntzaren doakotasuna ere”.

Ukitutako gaiak hain zabalak eta konplexuak izaki, puntu askotan kritika motz bat besterik ezin izan dugu egin. Gure asmoa da eskola komunitate barruan eztabaida bultzatzen jarraitzea, eztabaida horren bidez indartsuagoa izan dadin gizartearen erantzuna lege errepresibo horren aurka.

Akats bat dago hasiera-hasieratik, eta horrek eragina du egiten dituzten proposamenetan: ez dago hezkuntza sistemari buruzko egoera azterketarik, arazo eta beharrezan nagusiei buruzko azterketarik, erantzuna eman behar dien gizarteko eskakizunei eta eraldaketei buruzkorik. Ez dago aurre ebaluaziorik, ezta ebaluazio globalik ere eta, horren ondorioz, ez dago helburuen eta bultzatzen diren neurrien definizio zehatzik.

Kontuan hartzekoa da espainiar Estatuan hirurogeita hamarrekota hamarkadatik egin diren bi hezkuntza erreforma handiak onartzeko, LGE –Diktadorea bizi zela– eta LOGSE, aurretik hezkuntza sistemari eta gizartearen garapenarekin hark zuen loturari buruzko bi liburu zuri argitaratu zituztela.

Lehen aurkeztu zuten “Oinarrien Txostena”k ez zuen horrelako ezer jasotzen ezta orain iragarri berri duten “Aurreproiektuak” ere. “Motiboen azalpenak” atalean ere ez du batere argudio berririk eskaintzen. Horregatik, “Kontrarreformaren liburu beltza” txostenean hezkuntza sistemaren egoerari buruz egiten genuen diagnosi berberari eusten diogu orokorrean.

Lehenengo eta behin, proiektua berriz ere maskulinoz idatzita dagoela nabarmendu behar da, emakumearen presentzia askoz ere handiagoa den sektorean. Sentsibilitate gabezia hori onartezina dela iruditzen zaigu. MECek hezkuntzaren erabilerari buruzko bere arauak bete beharko lituzke txosten hau zein beste batzuk egitean.

1) LEGE HORI BEHARREZKOA DELA ADIERAZTEKO ERABILI DITUZTEN ARGUDIOAK

Lege honen premia zuzitzeko erabili diren argudio nagusiak, azken urteotako zaparrada mediatikoan behin eta berriro azaldu direnak eta Oinarri Dokumentuan ere jasota daudenak, hiru dira funtsean: ikasleen %25ek baino gehiagok ez duela DBHko titulua eskuratzen, "gure ikasleek erakusten dituzten jakintza gabezia nabarmenak" eta "ikastetxe eta ikasgeletako elkarbizitza eta ahalegin giroaren hondamendia".

a) Eskola porrota

Eskola porrota zer den zehaztea oso zaila da. Oro har, ikasleak oinarrizko edukiak bereganatzeko duen zailtasuna da porrota. Eskola porrotaren neurgailutzat ikasketak utzi edo ikasturteak errepikatu dituztenen batez bestekoa hartzen da.

Ikuspuntu horretatik, espainiar Estatuko adierazleek –inolako ikuspegi historikorik gabekoak– arduratu egiten gaituzte: Bigarren Hezkuntzako titulua lortu barik ikasketak uzten dituen ikasle kopurua (%27), ELGEko batez bestekoaren gaintik dago (%20 inguru, EAEko kopuruaren oso antzekoa).

Datu hori ezin ahantz daiteke baina ezta edozein modutan eta norbere interesen arabera erabili ere.

Lehenengo eta behin, *hezkuntza sistemen batez bestekoa alderatzen saiatzeak tranpa ezkututzen duelako*: programen eskakizunak, ebaluazio ereduak... aldatu egiten dira hezkuntza sistemen arabera. Iparraldeko herrialdeen adibidea (%90ek baino gehiagok jarraitzen du ikasten derrigorrezko bigarren hezkuntza egin ondoren) hainbeste sailkatzen ez duten mekanismoetan oinarrituta dago eta helduen hezkuntzari garrantzia handia ematen zaio.

Bigarrenez, analisis ezin daiteke iragana ahaztu:

Bigarren Hezkuntzako *Eskola Tasa Gordina* (eskolan dauden 14-18 urte arteko ikasleak), 1982an %50 izatetik, 2002an %95 izatera heldu da.

Eskola lorpeneko datuak orain dela gutxiak baino askoz hobeak dira gaur egun. Denboran oso atzera egin gabe, 96/97 ikasturtean %83,1ek bukatu zituen BBBko 2. mailako ikasketak eta %53k LHko 2. mailakoak. Orokorrean, DBHn jasandako eskola porrota BBBn eta LHn jasandakoa baino txikiagoa da eta hori ikasle askok hezkuntza sistema Bigarren Hezkuntzara iritsi baino lehen uzten zutela kontuan hartu gabe, hau da, OHO bukatu ondoren.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak (HZM) berak plazaratu eta *Idea* institutuak jasotako datuen arabera, 1989an ikasleen %37ak ez zuen lortu 16 urtera arterako finkatuta zeuden helburuak, eta 1999an berriz %23,6ak lortu zuen. Esan nahi da, hamar urteko epean indize hori %13,4an jaitsi dela.

Bigarren Hezkuntzako goi mailak bukatu dituztenen kopurua ere nabarmen hobetu da. Izan ere, gaur egun 30-39 urte dituztenen belaunaldiko %44k lortu zuen titulu hori, 22 urte dituztenen belaunaldikoen artean, berriz, %63,7k eskuratu du titulua. Hobekuntza hori eta EBrekin zeuden desberdintasunen estutzea elkarrekin joan dira: orain 22 urte dituztenen belaunaldikoen batez bestekoa Europako batez bestekotik 7,5 puntu urruntzen bada ere, 30-39 urte dituztenen belaunaldia 21 puntu urruntzen zen.

Ikuspuntu historikoak eskola porrotaren datuak erlatibizatu egiten baditu ere, aurre egitea behar-beharrezkoa dela errepikatzen dugu. Zalantzarik gabe, DBHko ikasleen %27k titulua ez lortzea arduratzeko modukoa da. Irtenbide egokiak lortzeko ezinbestekoa da datu estatistiko hotz

horiei aurpegiak jartzea: zeintzuk dira multzo horretan dauden gizarte sektoreak eta zein motatakoak dira kaltetutako familiak. Porrotaren zergatien azterketa zehatza egin beharko litzateke, zergatik den hain desberdina ikastetxe eta inguru batetik bestera. Eskola errendimendu txikia duen ikasle askok, hezkuntzaren eskakizunak arrakastaz burutzeko gaitasuna du. Eta hortxe nabarmentzen da ikasleen ingurune sozio-ekonomikoaren eragina, egindako azterketa guztien arabera ikasketa emaitzetan eraginik handiena duen faktorea baita. *Ideia* institutuak Gizarte Garantiako ikasleen artean egindako azterketa baten arabera, ikasle horietako %72a ingurugiro sozio-ekonomiko apal batetik dator. Deigarria da zein tarte handia dagoen portzentaje horren eta egoera hobean bizi diren familietatik (ingurumen soziokultural ertain-apaleko familietatik) heldutako ikasleen porrotaren portzentajearen artean: %13. “Langa argi bat dago testuinguru baxuenean kokatutako gizarteko %25aren eta gizarte enparauaren artean. Botere publikoek profil hori duten ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeetan kontzentratu behar dituzte euren ahaleginak”, dio konklusio gisa institutu horren zuzendariak.

Eskola porrota ez da hezkuntza fenomeno hutsa, gizarteko beste arloetan ere ondorio sakonak baititu. Sarri askotan gizarte porroterako bidea eta bazterketa arriskua errazten ditu. Behar bezalako gaitasunik ez duten gazteek arrisku handiagoa dute lan merkatutik bazter ditzaten edo lan ezegonkorretara behar ditzaten. Eskola porrotak zalantzan jartzen du gizartearen kohesioa. Hori dela eta, berretsi egiten dugu gazte guztiek hezkuntzarako eskubidea dutelako aldarrikapena, eta hezkuntza bazterketa eragiten duten mekanismoak geldiarazi egin behar ditugula.

PISA txostena oso esanguratsua da eskola porrotaren larritze edo leuntzean hezkuntza ereduak duten eraginari dagokienez. Ikasleen irakurketa gaitasunari buruzko sailkapenean, ELGEko gazteen %18 irakurterazak diren lanak egiteko gai baino ez da. “Irakurle txarrenak” deitutako talde horretan, espainiar Estatuko gazteen %14 baino ez dago, bereizketa areagotzen duten hezkuntza sistemadun herrialdeetan, berriz, kopuruak oso bestelakoak dira: Alemanian %23, Suitzan %20 eta Belgikan %19.

b) Ikasleen “maila”

Gai honen inguruan demagogia izugarria egin da, eta PPren Gobernuak berak xaxatu du demagogia hori hedabideen bitartez.

Lehenengo eta behin argi utzi behar da “maila” zeri esaten zaion eta nola neurtzen den. “Maila” memoria hutsean oinarritutako jakintza huts edo ortografia arauak menperatzea ez bada, neurtzea ez da kontu erraza. Bestalde, lau haizeetara zabaldutako datu horiek neurtzen dutenaren fidagarritasuna ere zehaztu egin behar da, ebaluaketak test itxurako frogan bidez gauzatzen baitira eta oso zaila baita modu horretan ikasle baten trebetasunak neurtzea. Era berean oso lotura handia egoten da, ikaslearen kultura mailaren eta familiarren kultura mailaren artean. Aztertu egin beharko litzateke kasu bakoitzean, gurasoen maila baino txikiagoa, bera ala handiagoa duen ikasleak, eta, are zailagoa dena, hezkuntza sistemak horretan izan duen eragina. Azkenik, “maila” horrek denboraren joanean izan duen garapena ere behatu beharko litzateke, hobetzen ala atzeraka doan neurtuz, aldera daitezkeen datu zehatzen bidez. Beraz, jarraian aipatzen diren ikerketak ere horrela ulertu beharko dira.

Jasan behar izan dugun hedabideen kanpainan, PISA 2000 ikerketaren nazioarteko konparazio-datuak erabili dituzte batez ere. Ikus dezagun datu horiek zer dioten zehatz-mehatz:

Hamabost urteko ikasleek lortzen dituzten emaitzak ez dituzte ELGEko herrialdeetako emaitzarik onenen artean sartzen: 31 herrialdeetan, 18. tokian daude irakurtzeko gaitasunari dagokionez, 23. matematikari dagokionez eta 19. zientziei dagokionez, eta batez bestekoa baino emaitza pixka bat baxuagoak dituzte. Hala ere, ez daude egin dituzten herrialde

batzuetakoengandik (Frantzia, Austria...) urrun, ezta ELGEko batez bestekotik oso urrun ere. Espainiar Estatuaren gainetik daude iparraldeko herrialdeak (Finlandia, Suedia), Asiakoak (Japonia, Korea) eta anglosaxoniarrak (Australia, Kanada, Erresuma Batua, Zeelanda Berria). Herrialde horietako kulturetan –ekialdekoetan eta luterotarretan– bestelako gizarte baloreak dira nagusi, eta adingabeen gaineko kontrol zorrotza dute. Espainiar Estatuko ikasleak mediterranearen herrialdeen (Italia, Grezia, Portugal) eta Erdialdeko eta Ekialdeko Europako beste zenbait herrialderen (Alemania, Hungaria, Polonia, Errusia...) aurretik daude. Bigarren hezkuntzan konparazioan inbertitzen den gutxitik lortutako emaitzak oso onak dira behinik behin.

Emaitza horien irakurketa are hobea da azken urteetan egin diren aurrerapausoak kontuan hartzen baditugu. ELGEk OHOk zazpigarren eta zortzigarren mailako ikasleekin antzeko azterketa bat egin zuen 1994an (*TIMMS*, "Matematika eta Zientzietako Hirugarren Nazioarteko Azterketa). Azterketa hartako emaitzen arabera, espainiar Estatua 31. postuan zegoen matematiketan, hau da, Europako herrialdeetatik Grezia eta Portugal baino ez zituen atzetik. Garapena, beraz, oso handia izan da urte gutxian.

Antzeko ondorioak atera daitezke MECen erakunde ofiziala den Ebaluazio Institutu Nazionalak (INCE) egindako konparazio ikerketatik. OHO zeneko seigarren mailako ikasleen (1995) eta gaur egungo Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoen (1999) artean egin zuen konparazio hori. Hobekuntza handia eta "estatistikoki esanguratsua" da Inguruaren eta Gaztelaniaren Ezagutzan, baita Matematiketan ere, ikasgairik patalenean, aurrerapausoak egin dira. Ingurumenaren ezagutzari dagokionez batez beste %62 erantzun zuzen ematen dituzte, 31 puntutan egin dute gora, 219tik 250era igaro dira. Gaztelania eta Literaturan batez bestekoa %65ekoa da, 22 puntutan egin dute gora, hau da, 228tik 250era. Matematiketan emaitzak kaskarragoak dira, erantzun zuzenak %54 dira, eta hobekuntza bost puntukoa baino ez.

Datu horiek egiaztatutakoak badira ere, oso hedatuta dago gizartean eta baita irakasleen artean ere, "ikasleek gero eta gutxiago dakitelako" ideia. Baieztapen hori, hots maila jaisten ari dela, historian zehar sarri erabili izan den argudioa da (Platon, erdi aroko eskolastika). Beti entzun izan diegu gure aurreko irakasleei ikasleen maila oso eskasa dela, baina hori ez dugu egiaztatu zientifikoki. Hala ere, nazioarteko datuek argi adierazten digute herritar gehienek heziketa mailak gora egin duela eta egiten ari dela.

Gaur egun DBHn dauden ikasleen batez besteko jakintza maila lehen BBBn zeudenena baino txikiagoa dela egia bada ere, datuak ez dira inola ere alderagarriak. Ikasle multzo batek prestakuntza hutsune nabariak izanagatik ezin daiteke orokortu. Gizartearen heziketa mailaren balorazioa egin nahi badugu, aldera ditzagun orokorrean lehengo eta oraingo gazteak eta datu guztien arabera jakintza maila handitu egin dela ikusiko dugu, batez ere, gazteen ikasketa esperientzia gaur egun askotarikoa eta aberatsagoa delako, baita ikastetxetik kanpokoa ere.

Beste alde batetik, sistema ulerkorra eta dohaintsuenen hezkuntza mailaren beherakada lotzen dituen tesia ez da zuzena. Derrigorrezko hezkuntzaren luzapenaren ondorioz, lehen eskola sistematik kanpora zeuden ikasleak sartu dira Bigarren Hezkuntzan, eta horrek zailtasunak areagotzen dizkio irakasleari. Hala ere, arazo hori eta kalitatezko hezkuntza sistema bateragarriak dira. Sistema ulerkorra duten zenbait herrialdek (Finlandia, Japonia, Korea, Erresuma Batua...) hezkuntza maila global handia lor daitekeela erakusten dute, ikasle aurreratuenen hezkuntzari kalterik egin gabe. Aitzitik, Alemaniako hezkuntza sistemak erakusten duen moduan, bereizketak ez dakar berez maila handiagorik.

Finlandiako adibidea nabarmena da. PISA 2000 ikerketako batez besteko irakurmen gaitasunik onenak lortzeaz gain, "bikain" maila (irakurketa ulermeneko lan sofistikuak egiteko gai direnak) lortu zutenak %18,5 izan ziren –681 puntuko batez bestekoaz–. Alemaniako bereizketa sisteman ikasleen %8,8k baino ez du maila hori lortzen –batez beste 650 puntu–.

Arazoaren sustraia ez da egungo hezkuntza sisteman bilatu behar, bere ezarpenean baizik. Hezkuntza lorpenak ez dira soilik legeen fruitua, eguneroko politiken gauzatzearenak baizik. Aniztasunak sistema malgua behar du eta, horrez gain, gure ikasgelen heterogeneotasunari aurre egiteko beharrezko diren giza baliabide eta materialez hornitzea.

Datuen arabera, beraz, zera esan dezakegu, eskola porrota ez dela handitu ezta maila jaitsi ere. Gertatu dena beste hau da: desberdintasun eta kontraesan guztiak azaleratu direla, bai hezkuntza alorrean, baita gizartean bertan ere.

c) “Eskolako bizikidetzaren hondatzea”

Ministerioaren txostenak aipatu baino ez du egiten. Beste arinkeria onartezin bat. Guztieta ala ikastetxe bakarrean gertatzen da? Nola ematen da? Ikerketa ofizialik ezean, galtzeko arriskua dugu horren gain arantzatsuan.

Era guztietako ikasleak masiboki sartu direnez ikasgeletan ukazina da arazoak ugaritu egin direla. Hala ere, ezin daiteke arazoa mugatu eta zailtasun guztiak “ikasi nahi ez duten ikasleen” ondorioa direla esan. Zergatiak sakonagoak dira. Ikasgeletan gizarteko aldaketak islatzen dira, eta baita ikastetxeko kontraesan guztiak ere. Irakasleek jakintza igorle gisa duten paperaren gainean gogoeta egin beharko genuke, hau da, indar bereko edo gehiagoko bitartekoek paper horri egiten dioten konpetentziaren gainean, izan ere, gure lanbidearen zilegitasunaren zutabeetako bati eraso egiten diotelako: jakintzaren jabetzari. Gogoetarako kontua da halaber, gizarteak ikasleen gizartekotzea irakasleen esku utzi duela eta, familia-instituzioa eta gizartean ezartzen ari diren baloreak aldatu egin direla. Kontuan hartu beharko litzateke bestalde, hezkuntza sistema ez dela dagoeneko gizartean arrakasta izateko bide nagusia.

Motibaziorik ez duten ikasleak arretaz hezteko giza baliabideak eta materialak urriak direla gehitu behar zaio horri guztiari, baita ikasleriaren banaketa homogenezorik eza ikastetxe publikoetan eta pribatuetan ere (diru publikoz finantzatutakoak). Izan ere, ikastetxe publikoetara desbideratu dira gatazka indibidual eta sozial handieneko eta gizarte mailarik behartsuenetatik datozen ikasleak. Arazoa egon ikastetxe guztietan dagoen arren, kaltetuenak ingururik degradatuenetan daudenak dira. Hau da, arazoa areagotu egiten da ikasleek bizi izan duten bazterketa indibidual eta soziala handiagoa den neurrian. Hortxe bilatu beharko genuke LOGSEren kontraesan funtsezkoenetako bat: proposatzen duen sistema ulerkor eta integratzailea sekula ez da inon gauzatu praktikan. Sekula zuzendu ez diren –zuzentzeko ahaleginik ere egin ez den– mekanismo askoren eraginez (izaera publiko ala pribatua, kuotak, hautaketa mekanismoak, hizkuntza ereduak...), ikastetxe bakoitzak arrunt jatorri sozial ezberdinetako ikasleak hartzen ditu.

Hala ere, egia baizik ez da ikastetxe batzuek besteek baino hobeto egiten dietela aurre elkarbizitza arazoei, eta horregatik hain zuzen fatalismoa alde batera utzi eta irtenbideak bilatu beharko genituzke. Ikastetxe barruan helburu eta jarduera ildo bat baino gehiago ezarri behar ditugu. Akatsen zuzenketa azkarra errazten duten prozedurak bizkortzea ona da. Gaur egungo arauak geldoegiak eta burokratikoegiak dira. Baina, egiaztapen horretatik harago, metodo bakar gisa diziplina neurriak erabiltzea kalteko izan daiteke, arazoak larriagotzea eragin baitezake. Hezkuntza komunitatearen adostasunean oinarritutako bizikidetzaren planak sustatu behar dira ikastetxeetan. Talde guztien parte hartzea behar-beharrezkoa da aurrera egin ahal izateko, irakasleengandik hasita. Horretarako, eta beste behin esango dugu, giza bitartekoak eta materialak behar dira, eta hasteko, egoera neurtzeko eta horren gainean eztabaidatzeko behar beste denbora hartuz, horri buruzko hezkuntza hobetu eta irtenbideak bilatzen saiatu. Bizikidetzaren hobekuntzak lotura zuzena du eskola porrotaren aurkako borrokarekin.

Ikastetxeetako bizikidetza arazoei eskolatik kanpora ere egin behar zaie aurre, arazoaren erroak gizartean ere badaudelako eta ez hezkuntzan soilik.

2) OINARRITZAT HARTU DITUZTEN DOTRINAK

Aldaketen oinarritzat erabili nahi dituzten ildoek bestalde, “Oinarrien Txostenean” markatutakoek, ez dute indar handirik: hiru gai aipatzen dituzte, baina batere sakondu gabe: “ahaleginaren kultura”, “ebaluazioaren kultura”, eta “aukera sistemak”. Gutxieneko sendotasun teorikodun kontzeptuak izan beharrean, proposatzen dituzten neurri zehatzak moztzeko estalki hutsak baino ez dira.

“Ahaleginaren kultura” aipatzea topiko hutsa da. Zerrenda amaigabe bat osa daiteke ikastea lan gogorra dela esan duten pentsalari klasikoen aipuekin. Esan beharrik ez dago hori hala dela. Baina eskola beraien onerako dela, ikasleen motibazioa lortzea, eskolako irakasbideek beraien gizarte baldintzapenen loturak hausten lagunduko diela sentiaraztea, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, eta are gutxiago eskolan porrot egin dutela uste badute. Eta are gehiago gaur egun ezagutzaren eta gizarte arrakastaren arteko zerikusia oso labainkorra dela kontuan hartzen badugu. Nahikoa litzateke, esate baterako, George Bush bezalako baten prestakuntza intelektuala aztertzea. Ikasturte promoziorako irizpideak gogortzeko eta errepikatzaileen igoera janzteko “ahaleginaren kultura” delakoaren bandera astintzea eskola esperientzia guztien aurka doa. Porrot egiten duenari ez ohi zaio indartzen motibazioa. Aitzitik, maldan behera larri batean amildu ohi da halakoa.

“Ebaluazioaren kultura” aldarrikatzean ere ez dute askoz gehiago asmatu. Egindako lana ebaluatzea, kanpotik zein barrutik, ezinbesteko elementua da hobekuntzarako, zalantzarik gabe. Baina ez du zentzurik ebaluazioa eta azterketa nahasteak, ezta azken hori gauza guztien neurri bihurtzeak ere. Baldin eta hezkuntzaren zeregina Administrazioak jartzen dituen azterketak gainditu ahal izateko erantzunak memorizatzea baino gehiago dela uste badugu behintzat.

Are badaezpadakoagoa da oraindik “aukera sistemak” gisa aurkeztu dutena, hau da, ikasleriaren motibazioaren eta ibilbide itxien artean ezarri nahi duten erlazioa. Hezkuntza sistematik baztertu ostean, “lanbide-hastapenera” edo bigarren mailako ibilbide batera bidalia izan den norbaitek motibazio handiagoa izango duela eta bigarren aukera gisa ulertuko duela pentsatzea errealitatea kontuan ez hartzea da. Ibilbide bakoitzari berehala erantsiko zaio bere mailaren zigorra eta ikasleak horren ezaguera osoa izango du. Garbiketa bakoitzak kaltetu andana utziko du atzean.

Laburbilduz, txostenaren oinarritzat jarri dituzten indar-ideiak, ohiko lekuen bilduma hutsa baino ez direla esan genezake, azal-azaletik baino ez dituztela landu proposatzen dituzten aldaketak justifikatzeko. Orain arteko bidea logikak aginduko lukeenaren kontrakoa izan dela dirudi: lehenengo aldaketak erabaki dituzte eta gero bilatu dituzte aldaketa horiek arrazoitzeko argudioak.

3) KALITATE LEGEAREN NEURRI ZEHATZAK

Behin eta berriro azpimarratu dugu hartu nahi diren neurriek ez daukatela justifikaziorik eta horrek izugarri tratatzen duela gai hau argudioekin eta modu arrazoituan eztabaidatzea. Hori dela eta, behartuta gaude luze bezain xeheki kritikatzera zalantza kanpokotzat eta gauzen logika naturalaren barrukotzat saldu nahi dizkiguten neurri horiek.

Taldekatu egingo ditugu proposatutako aldaketak, kritika errazagoa izan dadin.

3.1) Errebalida (batxilergoko azterketa orokorra)

Ezinbestekoa da batxilergo titulua eskuratzeko (azterketa guztiak eta errebalida gainditzea). Batxilergoko azken nota errebalida azterketaren eta espedientearen arteko batez bestekoa izango da. Errebalida Administrazio zentralaren eta autonomikoen artean ezarriko dute, dagokien portzentajearen.

Inork ere ez du zalantzan jartzen, arazoak aurkitzeko eta hezkuntza lana hobetzeko, ikastetxeek ebaluazio sistematikoak egin behar ez dituztenik, barrukoak zein kanpokoak. Baina horretarako azterketetako emaitza hutsak baino erreminta egokiagoak erabili behar dira.

Errebalida horrek, Alderdi Popularrak hezkuntza sistema kontrolatzeko duen itsumena, autonomia orokiko duen errezeloa eta hezkuntzari buruzko bere ikuspegia ezartzeko duen interesa islatzen du.

Ezarriko balute, Batxilergoaren helburuak bertan behera geratuko liriateke, azterketa horretara mugatuko bailukete guztia. Batxilergoak eskizofrenia antzeko zerbait pairatuko luke sarbide frogarako prestakuntza izaeraren eta hezkuntza-xede zehatzak dituen hezkuntza-maila izateko helburuaren artean. Ikasleei azterketak gainditzeko irakasten adituak bihur daitezke ikastetxeak; baina, aurrerantzean, ez dira ikasketa zentroak izango. Are gutxiago izango dira zeren, ikastetxeetako irakaskuntzaren "kalitatea" neurtzerakoan, azterketa horretan lortutako emaitzei begiratuko baitiete, erabat baztertuz beste faktore batzuk, hala nola ikaslearen profila, ingurumen soziala, ikasle gatazkatsu edo "errendimendu txikiko"aren bazterketa mekanismoak...

Selektibitatea areagotu egingo litzateke, izan ere, errebalidaren ostean, ikasleek unibertsitateera joan nahi badute, unibertsitateek ezarritako bigarren azterketa bat gainditu beharko bailukete (ULO).

Beste hautaketa metodo bat izango litzateke, zuzeneko eragina izango lukeena ikasleen etorkizunean. Ministerioak eskaintzen duen "irteera", hau da, Batxilergo gainditu ondoren errebalidan huts egiten dutenei libre uztea goi mailako lanbide heziketarako bidea, txapuz hutsa da. Gauzak horrela egingo balira Lanbide Heziketari tratamendu berezia emango litzaiotke eta berriro kutsatuko litzaiotke "bigarren mailako aukera" bat delako sona gaiztoa. Irtenbide eskasa, inondik ere, baina menturaz txarragoa izango litzateke ikasleria behartzea, zertara eta... ikasturtea errepikatuzera?, besterik gabe errebalidarako azterketa prestatuzera? Funtsean, hezkuntza sistemaren barruan selektibitateari pisu gehiago emateak eta sistema bera "maila" ezberdinetako ibilbidetan zatikatzeak konponbiderik gabeko arazoak baizik ez ditu sortzen.

Errebalida ezarriko balitz, bestalde, irakasleen lana ere kordoka jarriko litzateke, bi urtean egindako lanaren ebaluazioa azterketa bakar baten emaitzarekin parekatu bailitzateke.

3.2) DBHrako ibilbide itxiak

Zailtasunak dituzten 12 urteko ikasleak "laguntza taldeetara" baztertu ahal izango dira Ebaluazio-Batzordeak hala erabakiko balu. Antzeko zerbait egin ahal izango lukete ikasle etorkinekin. Ikasleek 14 urte dituztenean (DBHko 3. maila) Batxilergo gainera egin nahi dutenen artean eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa egin nahi dutenen artean banatzen dira. 15 urterekin, DBHko 4. mailan, hiru ibilbide izango dituzte, hau da, batxilergo Zientifikoari eta Humanistikoari dagozkienak bananduta. Kasu horietarako ebaluazio taldeak txostena egingo du, baina erabakia ikaslearen eta haren familiaren esku egongo da. 15 urterekin, eta ikasleak hala "nahi" badu, sistema alde batera utzi eta Lanbide Hastapenerako programetan (gaur egungo Gizarte Garantia) sartu ahal izango da. DBHko irakasgaiak hauek izango dira: Biologia eta Geologia, Kultura Klasikoa, Gorputz-Hezkuntza, Etika, Geografia eta Historia, Gaztelania, Erkidegoko Hizkuntza, Atzerriko hizkuntzak, Matematika, Natur Zientziak, Fisika eta Kimika, Plastika-

Hezkuntza, Latina, Musika eta Teknologia. Ibilbide guztiekin, titulu bera eskuratu ahal izango da. Sistemak ibilbide batetik beste batera pasatzen utziko du.

DBHri dagokionez, testua etengabe aldatu da Oinarri Dokumentua prestatu zenetik hona, batzuetan axaleko ñabarduretan baina bestetan berriz sakoneko gauzetan. Ikus dezagun bada nola utzi duten, testuak berak galdera pilo bat sortzen badigu ere.

“Laguntza taldeak” deitutakoari buruzko idazkera leundu egiten da DBH lehen eta bigarren mailetan, “hezkuntzazko laguntza neurriak” izatera pasatuz. Egia esan behar bada, idatzita dagoen eran edozein modutako jokaerak onar daitezke, har daitezkeen txarrenak ere barne liratekeelarik. Ea zehaztasun gehiagoz arautzen duten ala Autonomia Erkidegoen esku uzten duten ikusi behar. Dena den, ministroa egin daitekeen irakurketarik txarrean aritu da oraingoan ere, talde hauekiko bereizkeria eta izaera baztertzaila duten neurriak bultzatuz eta argi utziz, idazkera modu batekoa zein bestekoa izan, zein motatako neurriak ezarri nahi dituzten.

“Oinarrien txostenean” bereizketa bat egiten zen ikasgai arrunten eta ibilbideen berariazkoen artean. Orain ikasgai zerrenda bakarra agertzen da. Ez dakigu aldaketa honek zerbait esan nahi duen ala lehengo banaketa berbera mantendu nahi duten. Edozein modutan ere, PPren jokaeraren koherentziarik ezak ez du neurririk

“Irakaskuntzarako gutxiengoak izendatzea” agindu dute, “ikasturte bakoitzean irakatsiko liratekeen ikasgaiak” zehaztuz. Beldur gara ez ote den izango hau “Enciclopedia Álvarez” ezagunaren garaietara eraman nahi gaituen ibileraren beste urrats bat, Hezkuntza sistema edukiak buruz ikasteko eta ikasitakoa azterketa batean kanporarazteko makina bat izan behar duelako sinismenaren bidetik.

DBHrako ibilbideak direla eta, guk ez dugu inolako eragozpenik ikusten gaitasun eta motibazio handiagoko ikasleek ikasketak beste erritmo batzuekin egin ditzaten, baldin eta, “laguntzei” esker “geldoagoek” atzerapena berreskuratuko balute eta azkenean “bizkorragoen” kompetentzia berak izango balituzte. Horren antzeko zerbait egin nahi izan dute curriculum desberdinak eratzeko programak deritzenekin. Hala ere, MECek proposatu dituen ibilbideek – gero landuko ditugun promozio neurriekin (errepikapenak) batera– behin-betiko taldeetara garamatzate.

Ikasturte bakoitza behin baino ezin izango da errepikatu. Baldin errepikatu ondoan ikasleak ez balitu beteko hurrengo ikasturtera igartzeko baldintzak, “Ebaluazio Batzordeak, Orientazio Batzordeak aholkaturik eta gurasoei galdetu ondoren, eskua izango luke erabakitzeko ikaslea hurrengo ikasturtera pasatu ala ez”. Proiektuaren testuan ez da esaten zer gertatuko litzatekeen ikaslea hurrengo urtera ez pasatzea erabakiko balitz. Aurreko testuetan Ebaluazio Batzordeari ahalmena ezagutzen zitzaion ikaslea “laguntza talde batean edo haren baldintzekin hobeto datorren beste ibilbide batean sartzeko”, eta horrenbestez hilda geratzen zen ibilbideak aukeratzeko ustezko askatasuna. Orain isildu egiten dute aukera hori, baina inplizitoki dago proposatzen duten egituran bertan.

Laguntza taldeetan sartuta dauden DBHko 1. edo 2. mailako ikasleak –errepikatuko balute– lanbide hastapenera bideratzen dituzte, eta ez dute beste ibilbide bat egiteko aukerarik.

Ibilbideak itzulerarik gabekoak dira. Ibilbide aldaketak (malgutasuna), jaisteko ez bada, bideragarritasun eskasa du praktikan: errepikatzailea “beheragoko” ibilbide batera igaro ahal izango da. Borondatezko ibilbide aldaketak ahalegin handia eskatzen dio ikasleari egin ez duen ikasturteko hutsuneak betetzeko –ikasturtea errepikatu behar ez badu–. Dioten malgutasuna eufemismo hutsa da, derrigorrezko hezkuntza bukatu ostean ikasleek izango duten norabidea ibilbidearen arabera izango baita.

Ikasleak errendimenduen arabera banatzen badira, gaitasun handiagoa dutenek, izaten jarraituko dute, baina atzeratuta doazenek txarrera egingo dute. Izan ere, adin horretan, ezartzen dieten *rola* defendatuko dute, eta baldar eta gatazkatsu *rola* ezartzen badiete jokatu ere horrela jokatuko dute.

PPren Gobernuak errealitatea manipulatu du beste behin ere ibilbideen ezarpena eredu "europarrean" oinarritzean. Denetarik dagoen arren, Europako Batasuneko herrialderik gehienek derrigorrezko bigarren hezkuntza ulerkorra dute, eta ikasleen aukerarako eskubidea sustatzen dute. Gobernuak horrenbeste maite –eta manipulatu– duen PISA txostenak berak, honako egiaztapenak jaso ditu: ikasleen errendimenduak zuzeneko zerikusia du haren inguru sozio-ekonomikoarekin; sistema selektiboek nazioarteko konparazioetan batez besteko emaitza txarragoak lortu ez eze, ikasle "bikainen" batez besteko handiagorik ere ez dute lortzen, eta, gainera, sisteman aurrera egiten duen neurrian ikasle asko uzten dituzte bazterrean. ELGEK, bukatzeko, ikasleak aukeratzeko sistemen bazterketa saihesteko eta ikastetxe barruko segregazioa txikitzeko gomendatzen du, eta horrek, ibilbide askok dituzten gaitasunaren araberrako banaketak ezabatzea esan nahi du.

MECek ere gatazkaren eta "ahaleginaren kulturaren" argudioa erabili du. Ibilbideek ezin ditzakete era horretako arazoak konpon. "Maila oneko" taldeetan litekeena da arazook leuntzea. Baina interesik ezak eta diziplinarik ezak bere horretan jarraituko dute "porrot egindakoen" taldeetan, edo areagotu egingo dira beharbada. Ikasleak errendimenduaren arabera bananduz gero, eskola-gatazka areagotu egingo da, horrelaxe erakusten baitute nazioarteko esperientziek.

Ibilbide baten edo beste baten arteko aukeraketa ez dago soilik ikaslearen interesen arabera, baizik eta bere errendimenduen arabera. Ibilbideen helburua, taldeak gaitasunen arabera modu homogeenan eratzea da, irizpide bezala, ikasleen aurreko eskola notak eta izango dituen ikasketa aukerak, duten "zailtasunagatik" sailkatuak, hartzen baitira. Inguru sozio-ekonomikoak zerikusi izugarria duenez errendimenduan, ibilbideek gizarte desberdintasunen betierekotasuna eragiten dute.

Ibilbideen proposamenak areagotu egingo ditu ikastetxeen arteko desberdintasunak. "Proiektuan" jasotako hurrengo iritziak "diru publikoz hornitutako ikastetxe guztiek eskaini beharko dituzte Lege honetan ezarritako ibilbideak", ez du inolako edukirik, ezinezkoa delako hori planifikatzea eta are gutxiago neurritz txikiak diren ikastetxeetan edo hizkuntza eredu desberdinak indarrean dauden Euskadi bezalako lurraldeetan. Jakina, ikastetxe pribatu askok zentroaren "curriculum espezializazioa" hartuko dute aitzakiatzat eta ikasle "deserosoak" institutuetera bideratuko dituzte beraiek era horretako ibilbiderik ez dutela eskaintzen argudiatuz. Horren ondorioz handitu egingo da ikastetxe publiko eta pribatuen artean dagoen desoreka. Hierarkizazio horrek ingurune txiroetako ikastetxeak segregaziora eraman ditzake, izan ere, unibertsitatera ez daramaten ibilbideak hartuko dituzte. Hori egiaztatuta ageri da PISA 2000 txostenean. Ibilbide goiztiarrak dituzten hezkuntza sistemetan (Alemania, Austria...) handiagoa da ikastetxeen arteko aldea hezkuntza sistema konprentsiboak dituztenetan baino. Eta hori hemen askoz larriagoa izango litzateke Alemanian baino, han irakaskuntza pribatuak ez duelako indar handirik.

Euskal Herrian dugun hezkuntza sistema ez da konprentsiboa, bide eta aukera desberdinetan banaturik baitago (sareak, ereduak). Orain zatiketa bat gehiago egin nahi da. Ikasleen zatiketa eta banaketa onartezina den mailetaraino iritsiko da.

Ibilbideen banaketa ezin izango da gauzatu ikastetxe txiki edo ertainetan. Guk badakigu zein garestia den hiru eredu desberdin izatea. Orain arte ikastetxe askotan ez badute astean ordu biko aukerazko esparru duin bat eskaintzeko modurik izan, are gutxiago eskaini ahal izango dituzte bi - hiru ibilbide (eta beste ezkutuko bat, norabiderik gabea) hogeit eta hamar orduz astean. Iruzurra, eguneroko ogi bihurtuko da.

DBH bukatzerakoan, ikasle guztiei egingo zaie “ebaluaketa froga orokorra” deritzona. Hainbat aldiz esan arren ez duela “eragin akademikorik” izango eta “informatzeko eta orientatzeko” soilik dela, badakigu era horretako datuek, lau haizeetara zabalduko direnak gainera, irakaskuntza zereginak asko baldintzatuko dituztela. Froga honi, errebalidari buruz lehenago esandakoak atxiki behar zaizkio: ebaluaketa eta azterketaren arteko nahasketa, kontzeptuzko edukiak bakarrik neurtzea, familien jatorrizko maila sozio-ekonomikoa kontuan ez hartzea...PPren proposamenetan nabarmentzen diren hezkuntza iritziekin bat egiten dutenek gauzatutako honelako froga bat, kontrolatzeko tresna bat gehiago izango litzateke, uniformatzeko eta gizartean baztertuen dauden sektoreak doazen eskolak ospea galtzera eramateko. Eta berriz diogu, honek zerikusi gutxi duela, edozein hezkuntza sistemak eginean hobetu ahal izateko behar duen etengabeko ebaluaketaz.

3.3) Ebaluazioa, ikasturte promozioak, errepikapena eta tituluak

Promozioa, DBHko ikasturte bakoitza bukatu eta gero egingo da. Desberdina izango da irakasgai arabera. Irakasgai guztiak gainditu ez dituztenek ez ohiko azterketa bat egiteko aukera izango dute. Gainditu gabeko hiru irakasgai edo gehiago izanez gero, ikasturtea errepikatu egin beharko da. Ikasturte bakoitza behin baino ezin izango da errepikatu. Ikasleak, ikasturtea errepikatu ostean, hurrengo ikasturtera pasatzeko eskakizunak beteko ez balitu, Ebaluazio-Batzordeak, Orientabide-Departamentuaren laguntzaz, eta gurasoekin kontsultatu ondoren, ikasle hori hurrengo mailara igarotzea erabaki dezake. Ez da zehazten zer gerta daitekeen erabaki hori hartzen ez bada. DBHko titulua eskuratu ahal izateko ezinbestekoa da irakasgai guztiak gainditzea, “salbuespen moduan” baldintza hau alda litekeen arren. Titulu hori derrigorrezkoa da Batxilergoa edo erdi mailako LH egin ahal izateko.

Lehenengo eta behin gezurtatu egin behar ditugu promozio automatikoari buruzko informazio alderdikoi horiek. Hori ez da zenbaitetan kritikatzeko baldintzetan ezartzen. DBHko 2. eta 4. mailako gelak errepikatzailez gainezka daude: Bigarren Hezkuntzako ikasleek %40 baino gehiago ez dago adinagatik egon behar lukeen ikasturteetan (INCEren Txostena 2000). Gezurra da halaber Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua promozio automatikoari esker lortzen dena. Oparitu egiten bada, nola uler daiteke %27ko eskola porrota egotea?

Idea institutuak Gizarte garantiako ikaslearen artean egin duen harako arestian aipatu dugun azterketaren arabera, ikasle horien artean %9ak inoiz ez du errepikatu, %55ak behin bakarrik errepikatu du ikasturtea, %33ak bi aldiz errepikatu du eta %3ak soilik agortu ditu LOGSEk errepikatzeke ematen dituen hiru aukerak (behin Lehen Hezkuntzan eta bi aldiz Bigarren Hezkuntzan). Datu hauek argi uzten dute, diotenez, “irakasleek ez dutela baliatzen errepikatzeke aukera eta aukera hori ez dela lagungarria ikasketak bertan behera uzteko erabakia eragozteko”.

Arazoaren muinean sartuz, ikasturtea errepikatzeak ikaslearen motibazioan eta ahaleginean sakonean duen eragina aztertu beharko genuke. ELGEk (Eskolako porrota gaindituz, 1998) baieztatu zuenez, “*ikasturte errepikapenak kalterako dira, eta ez dira inolako babesa ikasleentzat. Errepikapenak, gehienetan, motibazioa galarazten die ikasleei eta ikasten jarraitzeko gogoak kentzen*”. Errepikapenak ikasleak bere ikasketak gaitasunean duen konfiantzari egiten dio kalte (“hartutako gaitasunik ezaren sentimendua”). Kaltea larriagoa da gizarteak eskola arazoak ikaslearen adimen gaitasunari ezartzen dizkion neurrian, inteligentzia berezkozat hartzen baitute. Laburbilduz, haurrak zailtasunak ez ditu gainditu beharreko oztopo gisa ikusten, baizik eta, bere trakestasunaren froga gisa. Prozesu horren emaitza ezkortasuna eta ukoa dira.

Kalitate Legearen promozio proposamenarekin irakaskuntzaren segregazio funtzioa areagotu ez ezik –DBHko 1. eta 2. maila errepikatu behar dituen ikasleak 15 urte izango ditu, hezkuntza komuneko sistematik kanpora geratuko da eta lanbide hastapenera bideratuko dute ezinbestean–

eskola bizikidetzako arazoak ere areagotu egingo dira –sarri askotan eskola porrotarekin lotuta daude–, eta, ondorioz, DBHko lehenengo mailatan errepikatzaile asko egongo dira. Kontu handia izan beharko litzateke DBHko 1. mailan izan dezakeen eraginaz, ikasleek institutuan egiten duten lehen urtea baita, eta eragin handia izango baitu haien eskola historian. DBHko 3. eta 4. maila ikasle askok ez egitea eta, ondorioz, sistematik baztertuta gelditzea da neurri horiek lortuko dutena.

Ikasleriaren interesik eza “promozio erraztasune” egoztea arinkeria onartezina da, eta benetako arrazoietan sakondu behar da. Eskola porrotari ezin zaio ikasturtea errepikatuz eta promozio irizpideak gogortuz egin aurre, baizik eta erroetara joz, kasu bakoitza eta arrazoiak aztertuz, langile adituen babesaz eta behar diren laguntza guztiez. Ikasturtea errepikatzea edo ez erabakitzeke ikasleari zailtasunak gainditzin lagunduko dion ala ez begiratu behar da, eta ez zigor gisa ezarri edo “arazoak sortzen dituztenak” baztertzeko modu gisa.

Gainditu ez diren ikasgaiarekiko “ez ohiko frogak” aipatzeak, “iraileko azterketak” dakartzkigu gogora. Ez ginateke oso urrun ibiliko PPren asmoak hortik doazela esango bagenu: ohiko eskola garaitik kanpoko frogak, ebaluaketa osoa azterketa soil batera murriztuz.

Bereziki ezezkorra iruditzen zaigu, ebaluatze taldearen esku uztea 16 urte bete dituzten ikasleek kaleratzeko aukera “beraien ustetan ezin izango luketelako ibilbide bat ere behar den aprobetxamenduaz burutu ez Lanbide Hastapenerako Programarik jarraitu”. Irakasleen gain utzi nahi da 16 urteko nerabeak gizartez kanpo uztearen erantzukizuna.

Oso gogorra iruditzen zaigu, bestalde, DBHko Graduatu titulua lortzeko “etapari dagozkion irakasgai guztiak gaindituak izatea” eskatzea. Orain erantsi duten “salbuespena” arautu zain dago, hain zuzen ere “Gobernuak zehazten dituen baldintzetan” egingo delako. Prentsan hasi dira esaten, han-hemen, posible izango dela titulua lortzea suspentso bi edukita ere bai. Ageriko.

Atal guztian barrena eta bere idazketa berriarekin badirudi ahalegin bat egiten ari direla gauza batzuk “leuntzeko”. Bizkitartean, lerro nagusiak edo bere horretan daude, edo euren lekuan holako laino multzo bat jarri da, interpretazio zaharrak onartzen jarraitzen duena eta batez ere kritikei bidea moztu nahi diena.

Bukatzeke, eta berriz ere nazioarteko esperientzietara joz, iparraldeko herrialdeen adibideak ditugu: Japonia, Irlanda, Erresuma Batua. Herrialde horietan ikasturtea errepikatzea ez ohiko gauza da, eta ez da errepikatzaileen maila eta kalitatea jaisteko arrazoia izaten.

3.4) Zuzendaritzen papera

Gobernu organoak zuzendaria, ikasketa burua eta idazkaria izango dira. Klaustroa eta Ordezkaritza Organo Gorena parte hartzaileak izango dira. Hezkuntza Administrazioek aukeraketa prozesu bat deituko dute urtero zuzendaritza funtziorako gaikuntzarako. Zuzendari bakoitza Administrazioak eta zentroko taldeko organoak osatutako batzordeak aukeratuko du gaitutakoen artean. Zuzendaria Administrazioaren ordezkaria izango da ikastetxean.

Hemen ikusten den lehenbiziko gauza da proposamen horrekin Ordezkaritza Organo Gorena eta klaustroek eskumen asko galduko litzuketela eta murriztu egiten dela ikastetxeetako erabakietan daukaten partaidetza.

Ikastetxeak antolatzeke gaur egun indarrean dagoen sisteman, eskumen nahaspila dagoela esan daiteke, zuzendaritzari dagokionean alde batetik (proiektuen onarpena, estrategia ildoak eta planak eta prozesu eta emaitzen kontrola nahiz ebaluaketa) eta kudeaketari dagokionean bestetik. Lehenengoak, eskola komunitateko talde guztiak bilduko litzuketuen organo kolegiatuei

dagokie eta bigarrena zuzendaritza taldeari. PPren proposamenean Ordezkaritza Organo Gorenaren zuzendaritza funtzioak murriztu egiten dira, kontsultarako organo bezala utziz eta kudeaketa funtzioei ekiten die, hauek Zuzendaritza Taldeari dagozkion arren. Arazo nagusienari ere ez zaio irtenbiderik ematen, hau da, zuzendaritza funtzioak betetzeko kandidaturik eza, ez baitira funtzio haiek bete behar diren baldintzak aztertzen.

Zuzendariak ez lirateke aurrerantzean hautatuak izango, "selektionatuak" baizik. Selektzio hau, baldintza jakin batzuk betetzen dituzten artean egingo litzateke (5 urteko antzintasuna kidegoan eta irakaskuntzan...) eta funtsean merezimenduen birbaremazio bidezkoa izango litzateke. Merezimenduak barematu ondoren, eskola komunitatea eta irakasleen parte hartzea aurkeztutako zuzendaritza proiektuak baloratzera mugatuko litzateke, eta selektzioaren emaitza orokorren arabera, punturik gehien atera duenaren izena Administrazioari jakinaraztera. Eta prozesu hau guztia burutu eta gero ere, administrazioaren esku gelditzen da "zuzendari kategoria" hartu baino lehen egingo duten lana ebaluatzea. Eta egitekoa ondo bukatzeko, administrazioak zuzendariari kargua kentzeko ahalmena izango du baina ez da inolako biderik arautzen ikastetxe bakoitzeko eskola komunitateak hori bera egin ahal izan dezan.

Zuzendarien zereginak diziplina esparruetara hedatzen dira. Zereginen barne dago "ikastetxera atxikitako langile guztien zuzendaritza eta dagozkion diziplina ebazpenak hartzea". Ikasleriari dagokionean, bere esku gelditzen da "beharrezko diziplina-neurri guztiak ezartzea".

Proposatutako neurri horiek guztiak LOPEGekin hasitako bidearen jarraipena direla esan daiteke eta, LOPEGek, gure iritzian, nabarmen egin du porrot.

Argi geratu da, beste behin ere, Administrazioak ikastetxe guztietako kontrolaren jabe egin nahi duela. Administrazioaren menpekoago izango den kidegoa eratu nahi dute, hau da, bere neurrien aurrean "jarrera ulerkorragoa" izango duena (karguan jarraitzea kanpo azterketen emaitzen arabera izango da). Neurri horiekin zuzendaritza karguen mendetasuna sendotu nahi dute hierarkian haien gainetik daudenekiko. Horri ikuskaritzaren parte hartze handiagoa gehitzen badiogu, batez ere Estatuko Goi-Ikuskaritzarena –Gobernu zentralaren esku– PPren asmoen ikuspegi osoagoa lortuko dugu.

Ildo hori guk oinarritzat dugun zerbaiten aurka doa, hots, ikastetxeen autonomia handitzearen aurka. Autonomia horretarako Gobernuan komunitate osoak hartu behar du parte, eta zuzendaritzak ezin dira kanpotik ezarritakoak izan. Bestela agintaritza legal osoa izango du, baina zilegitasun moralik batere ez.

Ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldeen egoera larria bada ere, ez da hau hori aztertzeke lekua. Aurretiazko gaikuntza dutenei zuzendaritzetarako sarrerak murrizteak arazoa areagotzeko baino ez du balio izan eta, zenbait ikastetxetan, irtenbide bideragarriari ateak ixteko. Aitzitik, ontzat hartuko genituzke bestelako neurri hauek: hezkuntza komunitateak bermatutako proiektua duten zuzendaritza talde kohesionatuen formazioa hobetuko luketenak; barneko eta kanpoko babesa handitzen lagunduko luketenak; ordutegi kredituak handituz sortzen den lan gainkarga gutxitzen lagunduko luketenak; zenbait funtziotan langile adituak sartuko balituzte eta zuzendaritza kargu horietan daudeneztat formulak bilatzeko neurri pizgarriak. Bakoitzaren eskumenak aztertu beharko lirateke, agindutako funtzioak modu eraginkorrez betetzeko aukera izanteko. Ez, lege honek bilatzen duen modura, ikasle/irakasleen gaineko boterea handitzeko, baizik eta kudeaketa gaitasuna handitzeko eta Administrazioarekin benetako elkarriketa bideratzeko.

3.5) Inmigrazioaren gainean

Eskola-adinean dauden eta espainiar hizkuntza eta kultura ezagutzen ez dituzten edo ikaskuntza instrumentaletan gabezia handiak erakusten dituzten etorkinak "hizkuntza eta kultura programen" eta "oinarrizko ikaskuntza instrumentalen" bidez eskolatu beharko dira. Eskola horiek, ahal den neurrian, ohiko ikastetxeetan ezarritako ikasgela berezietan eman beharko dira. DBHn sartu behar dutenean, berriz, maila horretara egokitzeko arazo handiak badituzte, Administrazioek "ikaskuntza profesionalerako programak" ezarriko dituzte (DBHtik kanpora geratuko dira).

Zalantzarik gabe, inmigratioari dagokionez, PPK lotsarik gabe erakusten du zein den bere pentsaera. Hasteko eta behin, sentiberatasun gabezia izugarria da inmigratioa "Hezkuntza beharrizan bereziak dituzten ikasleak" atalean sartzea. Ikasle etorkinen artean hezkuntza beharrizan bereziak dituztenak (lekuko hizkuntza edo hizkuntzak ez ezagutzen datozenak edo bestelakoak) eta ez dituztenak egongo dira. Identifikazio horrek PPK beste maila batzuetan hasitako bide bera berresten du: Inmigratioa=arazoa, inmigratioa=delinkuentzia, etab.

Hizkuntza eta kulturaren artean egindako erlazioa bitxia da. Testuan jartzen duenagatik behintzat ez dago oso argi "ikasgela berezi" horien oinarrizko funtzioa zein den. Lekuko hizkuntza edo hizkuntzak ikasiko dituzte (zeina, beharrezko bitartekoak jarri gero eta talde nagusitik larregi urruntzea ez balekar, ona izango litzatekeen) baina ez da horren argia arazo handiagoak eragingo lituzketen bestelako kultur kontuen gainean. Testuaren zehaztasun ezak baieztatzen uzten ez digun arren, badirudi inmigratioa bereganatu egin nahi dutela: gure kultura onartu eta beraiena utzi behar dute. Integrazioetik eta kultur pluraltasunetik gutxi dauka horrek. Kontu hori utzi egingo dugu garapena ikusi arte.

Etorkinek beste hizkuntza batzuk ikasteari buruz, oinarrizko iritzi batzuk bota nahi genituzke. Gaia aztertzen duen literatura orok ekiten du oinarrizko zenbait printzipiotan. (J. Cummins):

-Edozein ikasketaren oinarria aurretik izandako heziketa esperientzietan ezartzen da. Eskolaren zeregina, hauek gehitu eta aberastea da eta inolaz ere ez beste desberdin batzuenagatik aldatzea.

-Lege honetan ez dago printzipio horren garrantzia adierazten duen aurreikuspenik. Egiten duten aipamen bakarra, guk hemen kritikatzeko duguna da: heziketa esperientzi aldaketa. Zer aurreikusi da ikasleria honek bere ama hizkuntzan jarraitu ahal ditzan ikasketak? Inork pentsatu al du, ikaslearen jatorrizko kultura eta hasierako esperientziak alde batera uzteak, kasu batzuetan porrotera bideratzen duela?

-Jatorrizko ikasleriaren hizkuntza akademiko maila berdina lortzeko, 5 eta 9 urte arteko tartea behar da.

-Zer aurreikusi da administratzaileen aldetik denbora honetan guztian behar besteko arreta berezia eskaintzeko? Ala aurretik galdutzat eman eta merkeago iruditzen zaie ikasleria hau lanbidera zuzentzea?

-Gizartean erabiltzen diren hizkuntzen hiztunekiko harremana oinarrizko aldagaia da bai hizkuntza bera ikasteko bai gizarte horren kide sentitzeko ere.

-Onartezina da administrazioak indar gehiago egitea taldeen banaketan aipatu harremanean baino. Txarra ote da beste ikasleek eskain dezaketen laguntza?. Ezinbestekoa da ikasi behar duten hizkuntza, gehiengoaren kulturakoa dena bestalde, menderatzen duten ikasleekin harremana, horiengandik ikasiko baitute gehien. Ezagutza eta trukaketaren bidez bakarrik lortuko da benetako integrazioa eta arrazakeria bultzatzea.

-Helburua jatorrizko ikasleen maila akademiko berbera lortzea bada, garapen kognitiboa eta eduki akademikoaren lorpenak jarraitu egin beharko du baita hizkuntza ikasten emango duen denboran ere.

-Adituek berriro azpimarratzen dute ikasleak adinez dagokien eskola taldean sartu behar direla, hori baita modurik onena, behar den laguntza guztia emanda, ikasleen garapen kognitiboa eta adinari dagozkion helburuak –akademikoak barne-- lortzeko.

-Ikasleriaren hizkuntza garapena aitzinatu egiten da gurasoak ere, eskolarekin batera, euren seme-alaben hezitzaile direla sentitzen direnean eta sentitzen denean.

-Printzipio hau, esandakoaren eraginkortasuna bermatzen duten ikerketa esperientzietan oinarrituta dago. Hirugarren atalean familien orientazioari buruz esaten denari begiratzen badiogu, oso urruti gelditzen dira aipatutako intentzioak. Familiak bete behar dutenaz informatzen dira lehenengo, eta gero hezkuntza sistemak seme-alabei eskaintzen dizkien aukeraz. Urruti gelditzen dira gizarteratzea eta eskolan errazago integratzea bultzatuko luketen harrera eta partaidetza planteamenduak, horrela seme-alaben hezkuntza prozesuan eragile izatea oztopatzen zaielarik.

DBHri buruzko proposamena guztiz onartezina da. “Egokitzeko gabeziak eta zailtasunak” konpontzen saiatu behar gara, behar diren bitartekoak jarritz, ikaslearen jatorria edozein dela ere. Bazterketa porrotaren onarpena da beti. Ikasle etorkinak DBH egin gabe “lanbide ikaskuntzarako programetara” bideratzeak, zalantzan jartzen du horren derrigorrezko izaera. Hamabost urte bete ondoren lanbide hastapenera bidaliak izan daitezkeen “bertoko” ikasleekiko desberdintasuna, egokitzapenerako nahiko denbora utzi barik bidaltzea litzatekeelako.

3.6) Irakasleen zeregina

Ikasturte berezi bat egingo da irakaste lanerako espezializazio titulua eskuratzeko, eta ezinbestekoa izango da bigarren hezkuntzan eskolak emateko. Berriro ezartzen da katedradunaren figura. Irakasleen aldizkako ebaluazioa. Tutore lana saritzen da. Neurri bereziak 55 urtetik gorako irakasleentzat.

Kalitate Legearen propagandarako elementuetako bat irakasleak babesteko erreforma gisa aurkeztea izan da. Era honetako baieztapenak sistemaz errepikatu dira: “*beharrezkoa da irakasleen agintea eta izen ona berrestea*”.

Baina, zer dago hitz horien atzean? Irakasleen lana txalotu bai, baina neurri zehatzik bat ere ez. Dokumentuan irakaslearen motibazioarako eta haren lanaren esker onerako agertzen diren elementuak barregarriak izango lirateke gaia horren garrantzitsua ez balitz. Aitortu behar da, hala ere, atal hau goitik behera berridatzi dela eta ezabatu egin zaizkiola elementu barregarri eta bitxienak.

“Irakaste lanaren balorazio planak” aipatzen dira, ikaskaritzaren kontura egongo liratekeenak, eta “borondatezko ebaluazio” planak, irakasleen “karrera profesional” eta “mugikortasun eta promozio” kontuetarako aintzat hartuko liratekeenak. Garatzeko daude oraindik, baina zaila da sinistea Administrazioak batere ezagutzen ez ditugun irizpide batzuei jarraiki egingo duen ebaluaketa motibazio-akuilu izan daitekeenik inorentzat.

Orobat aipatzen dute “tutore lanaren konplexutasuna saritzea behar diren pizgarri profesional eta ekonomikoen bidez”. Arazo zenbait sortzen ditu horrek. Lehenengo eta behin, eskusartze onartezina iruditzen zaigu dekretu bidez ordainketa sistema bat inosatzea Autonomia Erkidegoei (sistema ezberdin bat daukagulako izan ditugu soldata eta lan baldintza hagitzez hobek). Gainera, kontu horrek haserre biziak sor litzake sektore ezberdinen artean, zeren tutoretzarik ez dutenek gutxiago kobratuko bailukete. Askozaz konponbide logiko eta praktikoagoa iruditzen zaigu eskola-lanorduak gutxitzea tutoretzatan behar den denbora guztia eman ahal izateko irakaslea lanez sobera zamatu gabe. Jakina, horretarako askozaz diru gehiago beharko litzateke.

Irakasleen hierarkizazioa bultzatzen ari dira, eta zuzendariaren eta katedradunen papera berpiztu nahi dute. Legeak katedradunen antzinako kidegoa berreskuratu nahi du haren pribilegio eta guzti. Zerrenda honetan hurrengo bezalakoak agertzeak: “Mintegien Zuzendaritza zereginetarako bakarrik”, edo “berrikuntza proiektuen zuzendaritzarako” lehentasuna aipatzeak, azkura sortzen du irakasle sektore batzuen artean.

55 urtetik gorako irakasleen laneguna murrizteko aukera propaganda zereginetarako erabili behar denez, hona hemen gai horretaz ari den pasartea: “Hezkuntza Administrazioek erraztasunak emango ditu laneguna murrizteko hala egitea eskatzen duten 55 urtetik gorako irakasleei, murrizten zaien ordu kopuruaren arabera soldata-murrizketarekin. Orobat erraztasunak eman ditzakete irakasle batek bere eskola-lanaren zati bat bestelako zereginetan erabiltzeko soldatarik murriztu gabe”. Bistan da asmo-adierazpen huts baten aurrean gaudela.

Proposatutako neurri bakar batek ere ez du irakasleen motibazio ezaren arazoa konponduko; lan-baldintzen erabateko aldaketak baino ez baitu egonezin hori konponduko. Horrek zera esan nahi du, lan ezegonkortasuna ezabatzea, plantillak gaztetzeko neurriak hartzea, aurre-erretirorako neurriak ezartzea, 55 urtetik aurrera ordutegiak murriztea, formaziorako edo bestelako kontuetarako urte sabatikoak ahalbidetzea, tutoretzei, lan osasuneko kontuei, irakasleen etorkizuneko aukerei eta antzeko arazoei aurre egitea... Ez da berba bakar bat ere azaltzen gai horien edo mahai gaineratu daitezkeen beste batzuei buruz.

Irakasleen hasierako lanbide-heziketa ere ez dute behar bezala lantzen. Asko eta asko gara Maisutza titulua lizentziatura bihur dadin urte askoan eskatzen ari garenok, Europako Batasuneko adituek eskatu bezala Zaragozan egindako azken batzarrean Horrekin aurrerapausoak egin ahal izango lirateke hainbat esparrutan: prestakuntza didaktiko hobe ahalbidetzea, Europan ez dagoen unibertsitate tituluen arteko bereizketak ezabatzea, irakasleriaren kidego bakarrerako bidea erraztea... Bigarren Hezkuntzarako ere ez dute irtenbide egokia aurkitu. Prestakuntza didaktikoa irakasle izan nahi duen ororen ikasketa curriculumean sartuta egon beharko litzateke. Behar besteko kreditu sistema baten bidez edo titulu osagarrien bidez egin daiteke hori. Proposatu duten “espezializazio didaktikoko tituluak”, oraindik zehazteke dagoen arren, ez dirudi hutsune hori beteko duenik. Gaineratu nahi dugu bestalde, DBHko irakasleek behar duten prestakuntza ez dela Batxilergo edo Lanbide Heziketakoek behar dutenaren berdina.

Prestakuntza etengabea aipatu aipatzen da, baina ez dute inolako neurri zehatzik jaso hori bultzatzeko. Zalantzarik da, beraz, esparru horretan inolako hobekuntzarik egongo den. Gure ustez funtsezkoa den gauza bat ez du jasotzen: etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubide eta betebeharra dela, horregatik eskola ordu eta lanekoen barruan eskainia, parte hartzeko oztoporik gabe eta gutxiengo baldintza batzuk betetzea eskatzen duena. Ganora gabekeriaren maila gorena jotzen dute, etengabeko prestakuntza “nork bere burua promozionatzeko” bide bezala ulertzean, aipamenik ere egin gabe haren funtsa eta oinarria izan behar lukeenaz, hots, ikastetxe barneko prestakuntzaz.

Kalitate Legeak irakasleari ekarriko dizkion ondorioen atal hau bukatzeko, aipamen berezia merezi du ondoko kontu honek: hezkuntza sistemari egingo zaizkion aldaketek berriro eragingo dute, batez ere Bigarren Hezkuntzan, birkokatze prozesu berri bat, eta haren eskutik leku-aldatze, ezabaketa eta abarreko segida luzea... Eta hori guztia, berriz, aurreko prozesu guztia, LOGSErekin abian jarri zena, batere finkatu gabe dagoela.

3.7) Pribatua, ikasleak onartzeko irizpideak, curriculum espezializazioa

Kontzertuek zuzendaritzaren funtzioak, antzinatasunak, ordezkapenak eta baimendutako hezkuntza programek behar dituzten kopuruak jasoko dituzte. Ikastetxeek curriculum

espezializazioak ezarri ahal izango dituzte. Ikasleak onartzeko kontuan hartu ahal izango da ikasketa-espeditentia; ikastetxeen hezkuntza eskaintzari dagozkion irizpide osagarriak ere ezarri ahal izango dira.

PPren Aurreproiektuak kontu ekonomikoei buruz egiten duen aipamen bakarra ikastetxe pribatuentzako kontzertuak handitzea izatea oso esanguratsua da, diru kopurua zenbait ataletan handitua izanez.

Aldi berean, Aurreproiektuak baieztatu egiten du ikastetxe pribatuetako finantziarioak 3-6 zikloa ere barneratzea. Kontu ezaguna dugu EAEn, PNV-PSOEn eskola paktua sinatu zenetik gauzatzen ari baita. MECek berak egindako kalkuluen arabera, Kalitate Legearen ezarpenak ekarriko lituzkeen gastuen % 70 a, atal hauetan joango litzateke.

Ikastetxe pribatuekiko faborezko tratamendu honek, “curriculum espezializazioak” eta sarrera irizpide berriekin batera, ikastetxe bakoitzak eskolatuko dituen ikasleen arteko desberdintasunak handitu egingo lituzke. Hau funtsezko elementu bat da PPK planteatzen duen politikan, “arazoak” dituzten ikasleen bazterketa hark dituen hezkuntza asmoen oinarrian baitago. Adibidez Frantzia egindako ikerketa batean, pribatuaren aldeko hautaketa egin duten gurasoen % 77ak onartzen du “*ez dela heziketa hobea eskaintzen duelako, sarreran sailkapena egiten dutelako baizik :txirorik ez dago eta etnia aniztasuna urria da*” (2001-02-12ko EL PAISetik jasoa). Hauek dira PPK bere politika aurrera eramateko izango dituen bide lagunak.

3.8) Haur hezkuntza

Orain arte Haur Hezkuntza izan dena, bitan banatuko da: “eskolaurrea” 0tik 3 urtera eta “Haur Hezkuntza” 3tik 6 urtera. Haur Hezkuntzan, irakurketa eta idazketa tekniken irakaskuntza hastapenak eta oinarrizko zenbaketa trebetasunak landuko dira. Era berean Hezkuntza Administrazioak, ziklo honetan dauden ikasleak atzerriko hizkuntza bat eta Informazioa eta Komunikaziorako teknologia ikasten hastea bultzatuko du.

Haur Hezkuntza etapa bitan apurtzea oso kaltegarria iruditzen zaigu, are gehiago “eskolaurrea” eta “haur hezkuntza” deituak izango direnak hartuko duten tratamendua guztiz desberdindua izango delako. Egia da, LOGSEren gai honi buruzko planteamendu teorikoak ez direla osotasunean garatu eta 0-3 tarteari zegokiona ez dela paperetik beste inora mugitu ere egin. Baina egia handiagoa da, planteamendu teoriko koherente bat apurtzea eta “zakarkeria” batez ordezkatzeko atzera pausu izugarria dela edozein ikuspuntutik aztertuta ere.

Ez dugu zalantzan jartzen lehen zikloak laguntzazkoa izan behar duenik gaur egungo familien beharrezko erantzuten dien heinean eta izaera honek garrantzia eskola, familia eta beste giza baliabide batzuen arteko koordinazioaren garrantzia azpimarratzera. Baina idatzita dagoen erak zalantza sortzen du, gauzak oker ulertzeko ateak zabaltzen dituelako, adibidez lehen bezala, gizarteko txikiak “edukitzeko” zerbitzuak baino ez eskaintzea. Baina familien nahia ez da haurrak “uzteko” leku bat soilik izatea, beraien hezkuntza funtzioak ere osatuko lituzkeen erakunde edo zerbitzuak izatea baizik. Ezin dira banatu heziketa eta laguntza, termino hauek osagarriak direlako hiru urte baino gutxiago dituzten haurrez ari garenean. Eskolak benetan hezi nahi badu, familien beharrei erantzun beharko die eta hauen behar eta eskariei lagunduz erantzuteko, hezi egin beharko du.

Hezkuntza Administrazioek “eskolaurrean” egingo duten gauza bakarra “plaza eskaintza koordinatzea” izango da. Ikastetxe nahiz profesionalen betebeharreko baldintzei buruz agertzen diren orokortasun zehaztugabeak onartezinak dira (“behar bezalako gaitasuna duten profesionalen ardura izango da”, adibidez). Ez da aipamen bakar bat ere egiten, Haur Hezkuntzako ikastetxeak bete behar dituzten baldintzei buruz, oraindik LOGSEk agindutakoa ere

bete barik izan arren. Gure ustez, arautu gabeko egoera honek gehiegikeriak egiteko atak zabalik uzten ditu, bai haurtzaindegien baldintza materialen arloan bai langileak kontratatzerakoan.

Otik 3 urtera doan zikloan, ezinbestekoa iruditzen zaigu eskaintza denentzat izatea eta bereziki behartsuenentzat. Ugariak dira hau baieztatzen duten ikerketak, desberdintasunak gainditzeko biderik onena eskolaratze goiztiarra dela frogatzen dutenak.

1/1993 Euskal Eskola Publikoaren legeak esaten zuenez “Hezkuntza Administrazioak, beste administrazio eta eragile sozial batzuekin batera 0 urtetik hasitako haurren eskolaratzea gauzatuko du pixkanaka eta eskarien arabera...egoera sozio ekonomiko txarrena duten herriei eta hezkuntza behar bereziak edo hizkuntzazkoak dituzten ikasleei lehentasuna emanez.”

Arartekoaren 2001 txostenean “ EAEko Hezkuntza premia bereziei emandako erantzuna” deritzon egiten dituen 21 gomendioen arteko lehenean hau azpimarratzen du: “Hezkuntza sistemaren antolaketa orokorrari eta horren lehentasunei buruzko gomendioak”:Erakunde honek egindako proposamenaren arabera, haur txikiak eskolatzean erabateko lehentasuna eman behar zaie bazterturiko ikasleei buruzko irizpideei”

PPk aurkeztutako testuak ez du ildo honetako inolako erronkarik ez hori gauzatu ahal izateko aurrekonturik. Esparru berean sar daiteke Eusko Jaurlaritzak 0-3 proiektuari buruz egiten duen liberalismo basatiz jositako analisisa ere bai, baina gehiegi urrutiratuko ginateke.

Haur Hezkuntza, 3-6 zikloa eskoletan kokatuko da eta “ zikloari dagokion titulazioa duten maisu/maistren” ardurapean egongo da. Zehaztapen hau aprobetxatuz, ikastetxe pribatuei subentziora handitu egiten die.

“Aurreproiektuan” oso azalean gelditzen diren “Haur Hezkuntza mailari” buruzko planteamendu pedagogikoak, zalantza ugari sortzen digute. Beharrezkoa da esparru batzuk zehaztea non norbere buruaren eta munduaren ezagutza ordenatuko den. Gaur egun, matematika hizkuntza kulturaren parte bezala ikusten denean, atzeratutako ideia deritzogu “kalkulurako trebetasunak”soilik aipatzeari. Ulertezina da curriculumeko zenbait aspektu (irakurketa, kalkulua, ingelera, IKT) solterik eta 0-6 etapa osorako planteamendu orokorra egin gabe.

Ez da ulertzen zer den “hizkuntza baten hastapena” 3 urteko haurrekin. Ignasi Vila eta beste aditu batzuen iritziz atzeriko hizkuntza batekin izandako harreman goiztiarrak “hizkuntzaren doinua bereiztea” bezalakoak hobetzen ditu eta beste herrialdeetako ohitura eta kulturak errespetatzea bideratzen du. Baina aldi berean bat datoz, adin honetan gaizki egindako lan batek etorkizunean atzeriko hizkuntzak ikastea zaildu egingo lukeela esaterakoan.

Teknologiai buruz hobe da eskolarteko kulturaz, irakasleen jarreraz eta eskolak informatu eta komunikatzeko dituen baliabideez sakontzea.

3.9) Lehen Hezkuntza

6 eta 12 urte artekoa. Bi urteko hiru ziklotan antolatzen da. Aho Hizkuntza, irakurketa, kalkulua eta abarren ikasketak eskainiko zaizkie, DBH aprobetxamendu osoz gaindi dezaten prestatzeko asmoz. Ziklo bakoitzean emango diren area desberdinak, gutxieneko irakaskuntzak finkatzerakoan zehaztuko dira..

Ezinbestekoa iruditzen zaigu curriculum koherente baten oinarriak ezartzea, adinari lotutako ezaugarri eta lortu nahi diren helburuei lotuta. Etapa horrek bere bereizgarritasunak ditu eta ezin da egon Bigarren Hezkuntzarako ezarriko diren edukien menpe. Curriculum guztiak “DBH

aprobetxamendu osoz gainditzeko” bideratuak eta horren menpe egoteak etapa berariaz dagozkion edukirik gabe uzten du. (orain lehen hezkuntza “maila” bezala agertzen da).

Gaur eguneko hiru eduki motak onartu eta aipatu behar dira: kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta baloreak, hauek direlako ikasi behar denaren planifikazio eta ebaluaketarako tresna egokiak.

Matematika ikasketen zehaztapen bakar bezala kalkulua aipatzea, lekuz kanpo dago. Inondik ere, ez du ematen arlo pedagogikoa Ministroaren gogozkoena denik ezta inguruan duen taldearena ere.

Aurreproiektuan berriz ere zikloak agertzen diren arren, ezer gutxi zehazten dute haien nondik norakoaz. Guk Lehen Hezkuntza hiru ziklotan banatuta egotea ontzat ematen dugu, izaera bakar eta integratua duelarik. Ziklo bakoitzak bere ezaugarriak izan behar ditu. Antolamendu honek ikasleari zenbait ikasketa lortzen laguntzen dio bere erritmoa eta prozesua jarraituz.

Bestalde, zeharkako planteamenduei buruzko aipamenik ez da egiten.

Lehen Hezkuntzako area desberdinen artean berriz aipatzen da Arte Hezkuntza, eta uste dugu hizkuntza plastikoak, musikazkoak eta dramatikoak osatuko dutela gaur egun bezala. Ministroak “Oinarrien Txostenean” sartzea ahanzte “akatsa” izan dela azaldu du.

Proiektuan esaten da, “Ziklo bakoitzean emango diren area desberdinak, gutxieneko irakaskuntzak zehazterakoan finkatuko direla”. Hemen bi eratako arazoak aipatzen dira. Alde batetik, Lehen Hezkuntzako edukien goitik beherako erreforma planteatzen ari dira. Ez dago inolako proposamenik baina Bigarren Hezkuntzarako onartu berri dituztenen ildo beretik badoaz, kontzeptuzko edukiak entziklopedia eran ordenatzera, kezkarria oso litzateke. Bestaldetik, areak zikloka banatzea, ikasketa globalizatuaren prozesuetatik oso urrun dago.

Lehen Hezkuntza bukatzean ere, “ebaluazio frogara orokor bat” egin beharko da. Idatzita dagoena, DBHri dagokion frogari buruz idatzita dagoenaren berdin berdina denez, orduan esandakoa hartuko dugu aintzat.

3.10) Teknologi batxilergoaren ezabaketa

Txostenean ez dute horri buruzko azalpen bakar bat ere ematen, teknologi eta zientzia batxilergoak batu egingo dituztela baino ez. Ez diogu zentzu handiegirik ikusten neurriari, eta are gutxiago goi mailako heziketa ziklo askotara eta hainbat lizentziaturara igarotzeko gutxieneko prestakuntza bat behar denean, eta txosteneko azalpenekin, ez dakigu prestakuntza hori lortu ahal izango den zientzia-teknologia batxilergo bateratuan.

Gaur egun, lau modalitateak kontuan hartuta, sei aukera daude Unibertsitatera sartzeko Froga homologatuan: humanitateak, gizartea, zientifikoa, osasuna, teknologikoa eta artistikoa. Zatiketa hau, ikasleriaren ibilbide errealei lotuta dago eta edozein ikasketei egokitzen zaie, bai unibertsitatekoei bai lanbide heziketakoei. Sei aukera hauek zeharkako bideak erabiliz mantenduko ote dira ?

3.11) Erljioa eskolan

Area edo ikasgai berri bat sortuko da, Gizartea, Kultura eta Erljioari buruzkoa. Honek, aukera bi eskainiko ditu, bata izaera konfesionala duena eta dagokion curriculumara erlijio agintedunak zehaztuko dutena eta bestea ez-konfesionala eta curriculumara Gobernuak zehaztuko duena. Ikastetxeak bi aukerak eskaintzera behartuta egongo dira.

PPrentzat ezinezkoa izan da hezkuntza erreforma ezartzea, arlo honi dagokionean ere bere behatza erakutsi gabe.

Geurean berrindartzen gaituen oinarriko kontu bat dago: erlijio sinismenak, arlo pribatukoak dira eta lekuz kanpo dago eskolako curriculumean sartzea. Erlijioa eskola orduan sartzea planteatzen duen edozein formulak izango ditu arazo konpon ezinak, diru publikoz hornitutako ikastetxe publiko guztiek bermatu behar duten aniztasuna, beste erlijioen eskubideak eta erlijiorik ez dutenenak direla eta. Erlijio desberdin guztiek dituzte beraien proselitismo zereginak eta prestakuntza aurrera eramateko behar beste baliabide, eskola dantzan jarri gabe. Erlijio katolikoak oraindik duen “pribilejiozko” trataera Estatuko erlijio ofiziala zeneko garaietako hondarra baino ez da.

Hemendik hasita, PPK egiten dituen proposamenak mutur muturrekoak dira. “Hautaketa konfesionala”ren curriculumak, “erlijio bakoitzeko agintedunen” esku uztea, arazoen iturri ziurra da batez ere “erlijiozko sinismenak” beste giza balore batzuekin topo egiten dutenean. Eskola esparruan gertatuko diren arazo askoren adibideak jar daitezke: Sexu heziketa eta preserbatiboaren erabilpena, dibortzioa, abortoa... Ez dute konpontzen erlijio irakasleen arazoa: urtez urteko kontratuekin, lan-legepeko izanez eta nagusiek egin nahi dutenaren menpe lan egin beharko dute.

Hautazko konfesionala hartzen ez duten ikasleei “Gizartea, Kultura eta Erlijioa deritzon arloa edo ikasgaia” hautatzera derrigortzea, beste astakeria bat dela iruditzen zaigu. Ez dute arloaren garapena egiten, horren ordezkotako azalpenak Ministroaren edo beste kargudun batzuek esandakoak direlarik. Soil soilik egite erlijiosoaren garrantzi historikoaz arituko den area isolatu eta berezi bat ezartzea, ez da ideiarik onena: erlijio fenomenoak atal asko ukitzen ditu, historia, artea, literatura, filosofia, pentsamenduaren historia...eta hor sartu beharko litzateke. Are txarrago izango litzateke area edo arlo honetan baloreen heziketa, etika edo antzerakoak sartzea. Horrela egiterakoan, “ez konfesionalak” arlo horretan behar gehiago duten itxura emango litzateke, konfesionalak behar ez duten heziketa emanez. Baina egia latza da, area honen ezarpenaren helburu bakarra “ez konfesionalaren” hautaketa egiten dutenek zigortzea dela. Aurreproiektuan ez da ezer esaten area hauei buruzko nota eta izango duen balore akademikoaz. Ministroak egin dituen zenbait deklaraziotan, erlijioa beste ikasgai bat dela defendatu du.

Proposamen hauetan nabarmen ikusten da, Opus-en inguruko korrante erlijioso integristenek PPregan duten eragina.

4) PROIEKTUAREN BALORAZIO OROKORRA

Proposatzen duten hezkuntza sistemaren egiturari osotasunean begiratuz gero, hirurogeiko hamarkadan zegoen sistemaren oso antzekoa da, Hezkuntzaren Lege Orokorra onartu baino lehenagokoarena, alegia. PPK defendatzen duen hezkuntza erreformaren atzean iraganaren mira dago, autoritatearen printzipioa nagusi zeneko “garai on eta zaharren” nostalgia, “jakintza” eta “printzipio zuzenak” zedarritu eta zerrendatu zitezkeeneko garaiena, ikasketak utzi eta “lanbide bat ikastea” bizilagunik gehienek patua zenekoa.

Guretzat zorigaitzokoa izan zen, baina beraiek idealizatu eta edertu egiten duten iragan horretara itzultzea ezinezkoa da zorionez. Gaur egun, jakintzak ziztu bizian ari dira gehitzen eta horien parte handi bat eskuratzeko giza gaitasuna bera ere gaingitu egiten dute. Hori dela-eta, dagoeneko ez dute balio eskola curriculum itxiek, eta ezinbestekoa da eduki eta trebetasun instrumentalak irakasten saiatzea eta ikasleengan abilezia orokorrak eta ikasketa estrategiak garatzea. Eskola sistemak berebiziko papera du integratzearako eta gizarteratzeko. Kultur oinarri sendoagoko belaunaldi berriak behar ditugu, gizarte gero eta zatituagoak eta konplexuagoak ulertzeko gai izango direnak eta, era berean, aldaketa azkarrera egokitzeko gai.

Eufemismoak erabiliz (kalitatea, aukera sistema, ahaleginaren erretorika...) hezkuntzaren ikuspegi baztertzaila ezkutatu dute. Hezkuntzak areagotu egiten du bere gizarte aukeraketa funtzioa, "gizarte darwinismoaren" pribilegiozko instrumentu bilakatzen da. Kontrolak gehitzeak eta ikasketa-errendimenduen arabera ikasleak ibilbide ezberdinetan banatzeak erraztu egiten ditu gizartearen aukeraketa eta sailkatze prozesuak. Ez dute zuzen-zuzenean aipatzen, baina hezkuntzaren bitasunerako baldintza materialak, estrukturalak eta pedagogikoak sortzen dituzte: hezkuntza selektiboa *bikaintasunaren poloarentzat*, hau da, gizartearen zientzia eta teknika eliteak sortzeko eta gizartearen kudeaketaren jabe izango direnentzat; eta hondakinezko oinarritzko hezkuntza *soberako gizateriarentzat*, hau da, esku lan merkea eta ezegonkorra izango direnentzat. Lan merkatuaren bitasunak isla du hezkuntzan. Mekanismo selektiboek bakoitza bere tokian jarriko dute. Eta oso erraza da sektore horietako bakoitzaren gizarte jatorria asmatzea.

Txosten osoan ez dago irakaskuntzaren kalitate hobea sustatu ahal izateko neurri bakar bat ere, eta ez da kalitatea handitzen lagunduko luketen eragileen gaineko jardura bakar bat ere aurreikusten. Hezkuntzaren kalitatea ikasketetako eskakizun mailak zorrozuz eta azterketak eta kontrol sistemak areagotuz handitzeko asmoak, zehaztu ez duten oinarri bat du: ikasleari zenbat eta gehiago eskatu hainbat eta "ahalegin" handiagoa egingo du. Azpikeria hutsa da azterketak irakaskuntzaren kalitatearekin eta eskola ahaleginarekin lotzea. Azterketek neurtu neur dezakete, baina ez dute irakaskuntzaren kalitatea hobetzen. Gure gazteen prestakuntza ez da bidean hesi handiagoak jarriz konpontzen, saltatzen irakatsiz baizik. Ikasleari garapena oztopoz gainezka jarriz gero motibazioa galduko du –inork ere ez du ikasten arrakastarik ezin duela izan ikusten badu- eta ikasketak uztea erabakiko du. Ondorioz, gehitu egingo dira sistematik kanpo geratzen direnen kopurua eta eskola porrota.

Irakaskuntzaren kalitatea, ostera, kalitate faktoreetan sakonduz lortuko da, hau da, izaera orokorreko arau gutxi, egituraketa malguak eta curriculum irekiak izanez, ikastetxe autonomoak eta irakasleria koordinatua, berrikuntza, etengabeko prestakuntza eta esperientzien trukaketa bultzatuko duena, barruko eta kanpoko ebaluaketa onartuko duena, ikasleriaren dibertsitatea landu ahal izateko neurri pedagogiko eta didaktiko egokiak eta behar diren giza baliabideak eta materialak ezarriz. Ez dakite gehiago azterketa gehiago egiten dutenek, baizik eta gehiago eta baldintza hobetan ikasten dutenek. Baina horretarako diru asko behar da. MECek kontrolak areagotu egin behar direla proposatzen du, baina hori eta hezkuntza kalitate handiagoa benetan lortzeko behar diren baliabideak gehitzeko duen konpromisorik eza ez datoz bat.

Txosten osoan nabari daiteke kontrolerako itsumena eta guztiz agortuta dagoen zentralismoaren aldeko apustua. Erkidego autonomikoekin ez dute hitz egin, ez diagnosis adosteko ezta hartu beharreko neurriak eztabaidatzeko ere. Albo batera uzten dituzte etengabe autonomien arteko desberdintasunak, lortutako emaitzen gainekoak zein bakoitzaren eskola egituraren hainbat atalen gainekoak. Uniformetasun handia lortu nahi dute eta, horretarako, Estatuak ezarritako neurrien kudeaketara eta fakturak ordaintzera murrizten dituzte erkidegoen eskuduntzak. Beste esparru batzuetan ikusi dugun moduan, hezkuntzara hedatu nahi duten zentralismoaren mehatxua da hori guztia.

5) HEZKUNTZA KALITATEA HOBETZEKO

Ez dugu amaitutako eta itxitako irtenbiderik eman nahi. Horretarako hezkuntza sistemaren arazoei buruzko egiteke dagoen diagnosi orokorra eta adostua beharko baikenuke. Baina dagoenaren hil edo biziko defentsa ere ez dugu egin nahi: hezkuntza sistema etengabe berrikusi eta eztabaidatu beharreko zerbait da, puntu ahulak aurkitu ahal izateko eta hobetuko duten lan ildoak ezarri ahal izateko.

Gauza nabari batzuk eta eztabaidarako beste batzuk seinalatuko ditugu soilik, orain arte aipatutakoa ez errepikatzen saiatur. Ikuspuntu hauek sakoneko eztabaida batez aberastu behar dira, zeina, gure ustez, egiteke dagoen oraindik.

1) Hezkuntzara bideratutako baliabideak gehitu, integraziorako baliatu

Nazioarteko konparazioek zerbait argi utzi badute, espainiar Estatuak hezkuntzara bideratutako inbertsioetan kalabaza atera duela da. Ekonomi Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) egindako **Educacion at a Glance** 2001 ikerketaren arabera, Greziaren atzetik, hezkuntzaren BPGren portzentajerik txikiena inbertitzen duen Estatuak da: %4,5. Bigarren Hezkuntzaren ikasle bakoitzeko egiten duen gastuari dagokionez, berriz, EBko hamahirugarren tokian dago (Greziaren eta Irlandaren aurretik baino ez). Horrez gain, azken urteotan hezkuntzaren inbertitutako diru publikoa %4,9tik (1993an) %4,5era (2001ean) jaitsi da. *Hezkuntzarako gastuaren beherakada hori 1996tik da batez ere esanguratsua, ekonomiaren hedakuntza aldia izan baita*. Bestalde, ELGEko 18 herrialdeetatik 11tan hezkuntzaren egindako inbertsioa urteko %5 baino gehiago hazi da 1995etik 1998ra (termino absolututan eta gastu publiko osoarekin alderatuta).

Datu horiek agerian uzten dute PPren lotsagabekeria: hezkuntza sistemaren aurkako kanpaina zitala egiteaz gain, hezkuntzarako bideratutako gastu publikoa murriztu baino ez baitu egin.

Benetako edozein hobekuntza ildo jorratu nahi bada Hezkuntzara bideratutako gastuak nabarmen gehitu behar dira, eta komenigarria izango litzateke hori guztia Finantzazio Lege batean jasotzea.

Horrez gain, ezinbestekoa izango litzateke baliabide handitze horrek konpentsazio-funtzioa betetzea, diru publikoa nola banatzen duten ere zalantzan jartzeko modukoa baita. Sektorerik txiroenak eskolatzen dituzten ikastetxeek lehentasunezko tratua izan beharko lukete eskola porrotari aurre egiteko eta ikasleak gizarteratzen laguntzeko.

Gaur egun zaila da ikastetxe batek izen ona izatea haren irtenbide didaktikoa papera, arbela eta klariona baino ez badira. Institutu askotan talde malguak egiteko arazoak daude, lekurik eza da arazo maiz, eta, ondorioz, mugatu egiten dute ikasgela berezietan erabilera (teknologia lantegiak, laborategiak, informatika gelak, hizkuntza gelak...). Bitxia badirudi ere, Lehen Hezkuntzako ikastetxe askotan eskola irratiak eta telebistak Bigarren Hezkuntzako gehienetan baino garatuago daude. Egoera horri buelta eman ahal izateko inbertsio plan sendo eta eutsia behar da.

Beste alde batetik, giza baliabideak gehitzea exijitu behar dugu. Arazorik premiazkoenei aurre egin behar dieten ikastetxeetan batez ere, ikasle taldeak txikiagotu eta behar diren laguntza taldeak eta banaketak areagotu egin beharko lirateke. Dauden beharrezanetan ere irakasle adituak gehitu egin behar lirateke (logopedia, zeinu-mintzaira, atzerriko kultura eta hizkuntzak, ikasteko arazoak...). Bestalde, kasurik zailenei ezinbesteko gizarte-tratua emango dieten langileak sartu behar dira plantilletan: gizarte-laguntza, kale-hezkuntza, hainbat esparrutan espezializatutako langileak...

2) Irakasleen egonezina arindu

Irakasleen egonezinen arrazoiak oso nahaspilatsuak dira. Horietako zenbait zuzen-zuzenean daude lotuta irakaste lanaren izaerarekin berarekin (haur eta nerabeekin lan egitea, gizarte gatazkako agerraldiekin eguneroko harremana...). Era horretako lanak egiten ditugun langileok (Osasuna, Hezkuntza...) lan-arloan estres eta nekadura mailarik handiena izaten dugu.

Egoera berezi horri erantzun bereziak emateko eskatzea bidezkoa dela uste dugu. Foniazio eta gihar-hezurretako arazoak lanbide-gaixotasun gisa ez onartzea lotsagarria da.

Beste arazo batzuk areagotzen ari dira azken garaiotan: irakaste lanaren izen galtzea, irakasleen bizkar uzten diren ardurak gero eta gehiago direla, "jakintzaren jabe" gisa dugun paperak porrot egin duela...

Bigarren Hezkuntzako irakasleen artean, batez ere BBB zaharretik datozenen artean, Erreformatik izan duen eragina aurrean ezin dira begiak itxi. Neurri handi batean, irakasleen izaera profesionala eskola oso selektibo batean eraiki dugu historian zehar, eta orain "kontratu aldatu digute". Batxilergoak bereizketa irizpideekin funtzionatzen zuen garaian sartu ginen Hezkuntza sisteman; ikasleei unibertsitatean sartu ahal izateko behar zituzten jakintzak irakastea zen gure lana (eskolak prestatzea, gaiak irakastea eta ariketak zuzentzea). DBHren muin-bakartasunak goitik behera aldatu du egoera. Orain hezkuntza sistemaren barruan gutxienez hamazazpi urte egin arte egon behar duten ikasleekin egin behar da lan, eta aurre egiteko inolako prestakuntzarik jaso ez dugun lanei egin behar diegu aurre (irakaste lan hutsa baino gehiago, nerabe problematikoen hezkuntza, hezkuntza sisteman egon nahi ez duten gazteen motibazioa, tentsio eta gatazka egoerei aurre egitea...). Ordainetan, irakasle askok uste du hezkuntza sistemaren erreformatik ez diola inolako ordainsaririk eman. Aitzitik, lan baldintzen murrizketa eta lan ezegonkortasuna eragin ditu (lekualdaketak, zerbitzu arbitrarioen batzordeak, etengabe itxaroten egon beharra, bitarteko langileen lan-poltsa etengabeak, kontratu gero eta kolokakoagoak).

Horri guztiari ikastetxe bakoitzak eskolatzen dituen sektoreen arteko desoreka gogorrek gehitu behar zaizkio. Izan ere, horrek irakaste lana zaildu egin du ikastetxe askotan, publikoetan batez ere.

Orain, hezkuntza sistema eta curriculumak aldatzeko egin diren proposamenek lehenago pasatuko bera errepikatzea eragin dezakete: ikastetxe gehiago ixtea edo bategitea, birmoldaketarako prozesuak, ezabaketak eta lekualdaketak... eta, dagokion atalean adierazi dugun moduan, baldintzen hobekuntzetarako proposamenek zehaztasun eza izugarria dute.

Ez gara luzatuko hemen egoera horri jar dakizkiokeen irtenbideekin, lehenago ere garatu baititugu beste leku batzuetan. Oinarrizko zerrenda bat baino ez dugu egingo: kolokako lana ezabatzea, lanbide-gaixotasunak onartzea, aurre-erretiroak eta 55 urtetik aurrera lanaldia murriztea, urte sabatikoak, prestakuntza eskola-orduetan handitzea... Hori guztia bete eta ikastetxeetako giza baliabideak eta materialak gehituko balira, irakasleen egonezina asko arinduko litzateke.

3) Ikastetxe eta erkidegoen autonomia handitzea

Oinarrien Txostenean planteatu ez bezala, kalitatea autonomia handituz soilik hobe daitekeela uste dugu, erkidego autonomoena zein ikastetxeena.

Hezkuntza errealitatea oso desberdina da erkidego bakoitzean. Horren lekuko kulturen eta hizkuntzen eta bestelako eragileen emaitza da, hala nola: produkzio-ehunen ezaugarriak eta garapena, hezkuntza sistemaren egitura, biztanleriaren titulazio maila, hezkuntzaren ezaugarri historikoak... Beharrian zehatzei azterketa zehatzak eginda baino ezin zaie erantzun. Baina PPK hezkuntza sistema Estatutik berdinu nahi du eta horrek Euskal Herriko hiritarren zauriak eta erremina areagotu besterik ez ditu egingo.

Antzeko zerbait esan daiteke ikastetxeen autonomiari buruz ere bai. Ez gara luzatuko, izan ere, hainbat txostenetan landu izan dugu hori luze eta zabal. Laburbilduz, guk defendatzen dugun autonomiak ikastetxeen arteko desorekak gainditzera joan beharko luke eta ez desberdintasunak

gehitzera. Horretarako behar beharrezkoa da ikastetxe guztiek oinarritzko baldintza batzuk betetzea: dohaintasuna, ikasleak ez diskriminatzea, giza pluralitatea eta aniztasuna onartzea, kudeaketa demokratikoa eta gizartearen gutxieneko kontrola bermatzea...Hortik aurrerako erabakiak -hezkuntza proiektua, curriculum, lan egiteko ardatzak ezartzea...-hartzeko gaitasunak sektore guztien arteko partaidetza eta erantzukizuna sendotzen ditu, ikastetxeari nortasun ezaugarri propioak eranstean dizkio eta inguruko eskariei askoz hobeto erantzuteko aukera ematen dio.

4) Kalitatearen hobekuntzan benetako eragina izango luketen neurriak

Goian aipatutako hiru lan ildo nagusiak ezartzeaz gain, eta esandakoaren parte bat berriz errepikatuko dugun arren, komenigarria deritzogu laburpen gisa irakaskuntzaren kalitatea hobetuko luketen neurrien zerrenda egiteari.

Eskolako Hezkuntzari Buruzko Europako Txostenak (Europako Batzordea, 2000) 4 esparrutan banandutako 16 Kalitate Adierazle ezartzen ditu:

- Maila adierazleak (emaitzak): irakurketa, matematikak, zientziak, IKT, atzerriko hizkuntzak, ikasten ikastea eta gizarte-hezkuntza.

- Arrakasta eta trantsizio adierazleak: eskola abandonuen tasa, bigarren hezkuntza amaitzea, goi hezkuntzan parte hartzea.

- Hezkuntzaren jarraipen adierazleak: eskola-hezkuntzaren ebaluazioa eta gidaritza, gurasoen parte hartzea.

- Baliabideei eta egiturei buruzko adierazleak: irakasleen hezkuntza eta formazioa, haur hezkuntzan parte hartzea, ikasle kopurua ordenagailuko, ikasleko hezkuntza gastua.

Nazioarteko erakundeen gomendioak betez, eta adierazle horien gainean jardun ahal izateko, interesgarria deritzogu hurrengo lan ildoetan urratsak egiteari:

- Arreta pertsonalizatuagoan eta gure gizarte ereduak eragiten dituen hezkuntza desberdintasunen konpentsazioan aurrera egitea: tutore-arreta indartzea; orientazio departamenduak osatzea; konpentsazio jarduerak bultzatzea; banaketa-gelak eta talde malguak bultzatzea; laguntza eta errefortzu jarduerak sustatzea eta gaintitu gabeko irakasgaiak berreskuratzea. Hautazko irakasgaien kopurua gehitu behar da eta, irakasgai horiek, ikasleriaren interes plurali erantzutea exijitu behar dugu eta baita konplexutasun maila desberdinak izatea ere. Dibertsitatearen arreta hori eskolatzearen hasieratik egin behar da.

- Taldeko ikasle kopurua eta irakasle bakoitzak duen ikasle kopurua murriztu.

- Lan baldintzak benetan hobetuko dituzten neurrien bidez lortu behar da irakasleen motibazioa.

- *Klaustro egonkorren osaketa* bultzatu eta ezegonkortasuna murriztu.

- Aurrerago aipatutako guztiak *gutxieneko irakasle plantillak osatu* behar direla esan nahi du. Eta plantilla horiek ikastetxe bakoitzaren hezkuntza beharizanetara egokitu behar direla.

- *Irakasleen prestakuntza* bultzatu. Hasierako prestakuntzak lizentziatura izan behar du Lehen Hezkuntzan eta prestakuntza pedagogikoa Bigarren Hezkuntzan. Prestakuntza iraunkorra ikastetxeek beraiek gidatu behar dute.

- Hezkuntza zentroen autonomia, ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza proiektua bultzatzeko aukera izan dezan. Horrek hau behar du: proiektua egin ahal izateko behar diren giza baliabideak eta materialak; hezkuntza komunitatearen parte hartze demokratikoa; kanpoko agindurik gabeko

kudeaketa; burokrasia gutxiago eta, azkenik, ikastetxean egingo diren txostenek hezkuntza errealitatearen beharriaz erantzutea.

- Zailtasun handiak dituzten ikasleak hezkuntza zentro zehatzetan ez kontzentratzea. Eskola publikoa ezin daiteke eskola pribatuak onartzen ez dituen ikasleen bilgunea izan. Eragotzi egin behar da diru publikoz mantentzen den edozein zentrok –publikoa zein pribatua– ikasleak aukeratzea.

- Ikastetxeen *azpiegitura* hobetu: lantegiak, ikasgela bereziak... Hezkuntza jarduerak egiteko erabiltzen diren lekuek bizikidetzatza eta ikaskuntza errazten edo zailtzen dute.

- Bizikidetzatza hobetzeko planak eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak sustatu bizikidetzatza eta harremanen hobekuntzatza gisa. Ikasleek hezkuntzatza zentroarekiko sentimendu onak izateatza oso garrantzitsua da. Eskolatza curriculumean edo curriculumaz kanpoko jardueretan parte hartzen badute, errazagoa da emaitzatza onak lortzea. Errendimenduek eta eskolarekiko jarduerak elkarrenganako harremanak dituzte: ikasleei ondo egiten dutena gustatzen zaie, eta gustatzen zaientza ondo egiten dute.

- Ezinbestekoa da jatorria eskolan ez duten arazoak konpontzeko beste erakunde batzuek ere parte hartzea. Ikastetxeei langile espezializatuek lagundu behar zaie gizarte arloan.

6) PROIEKTUA BERTAN BEHERA UZTEA EXIJITZEN DUGU

“Hezkuntzaren Kalitate Legearen Proiektuak” ez dauka inolako funtsik eta ez du eskaintzen eztabaidarako inolako tarterik. Ez dago hezkuntzatza sistemaren arazoan azterketarik, eta, ondorioz, zaila da jakitea nondik ateratza dituzten proposatzen dituzten “irtenbideak”.

Ondorioz, Kalitate Legearen proiektuatza bertan behera utzi behar dela uste dugu. PPK hasi duen ezarpen bidea (ULOrekin egin zuen bide bera) zuzendu egin behar da. Hezkuntzatza sistemaren azterketa zorrotzatza, plurala eta adostua egin behar da lehenengo. Benetakoa arazoak aurkitzeko eta arazook konpontzeko oinarriak eta bitarteko materialak jartzeko bide bakarra era horretako azterketa bat egitea da eta.

Bilbon, 2002ko irailaren 17an.